# Goienkaria

2008ko apirilaren 30a > Eguaztena > VIII. urtea > 330. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Bizi osorako hezkuntza, formazioa eta ongizatea eman dizkit kirolak"

**Miguel Santos**
Bruesa Gipuzkoa Basket > 07

**G2a** Huhezinema film laburren lehiaketa > 25-26

**OÑATI**
Asentzioko auzo elkartea inauguratuko dute Murgian > 16

**ARETXABALETA**
Amnistiaren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak astelehenean > 18

**ANTZUOLA**
Herritarrekin landu nahi du Udalak ume eta gazteen aisialdia > 21

**ARRASATE** > EPAITEGIAK

## Galparsoro, Garzonen aurrean

EAEren jardueren etetea bete ez izana egotzi dio Garzonek alkateari > 12

**INGURUMENA** > KONPOSTA

## Hondakin organikoak bi modutara batuko dituzte

Foru Aldundiak aurkeztu duen konposta egiteko hondakinak batzeko plan aitzindarian dago Aretxabaleta, eta herri horretan edukiontzi bidez batuko dituzte hondakinok. Hala ere, Mankomunitateak proposatu du beste sistema bat abian jartzea, aldi berean: etxerik etxe batuko lituzkete hondakinok. > 04



**KLARATARRAK** Oñatiko Santa Ana monasterioan klaratarrak bizi dira; Irudian, mojak komentuko lorategian. MIRIAN BITERI

**ERLIJIOA** > DEBAGOIENEKO MOJAK

# Klausurako 110 bat moja bizi dira ibarrean

**SEI KOMENTU** Kontenplaziozko bizimodua daroaten sei monasterio dago ibarrean; erdiak, Oñatin

**BIZIMODUA** Eguna otoitzean eta beharrean ematen dute; batzuek, kanpora begirako lanetan ere > 02-03

**ARAMAIO** > AHT

## Desjabetze akten aurka protestak

Mobilizazioak deitu ditu AHT Gelditu!-k Aramaion > 23

**KIROLA** > SASKIBALOIA

## EBAko talde bihur daiteke MU

Urdanetari irabaziz gero domekan, igo egingo da taldea > 24

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04
**Elkarrizketa** > 07
**Gutunak** > 06
**Herriak** > 09-23
**Kirola** > 24
**Kultura** > 25-26
**Gazteak** > 27
**Sailkatuak** > 28
**Berri-zakua** > 29
**Telebista-Irratia** > 30
**Non-zer** > 31


**POLITIKA** > MOZIOA

## Mozio 'etikoa' eztabaidagai da gaur Eskoriatzan

PSE-EEren eta EAJren ekimenez bultzatutako mozio *etikoa* eztabaidatuko dute gaur Eskoriatzako udaletxean, osoko bilkuran. Berezitasuna da EA alderdiak bat egingo duela mozioa aurkezteko eskaera horrekin, orain arte beste udaletan gertatu ez dena. Osoko bilkura 18:45ean da hastekoa.

Bergaran, astelehenean, bertan behera geratu zen mozio hori: EAJren hiru eta PSE-EEren bi aldeko boto izan zituen; Aralarren hiru eta EAEren aurkako sei; eta EAko zinegotziaren abstentzioa.

PSE-EE hasi da Arrasaten zentsura mozioa aurkezteko harremanetan. > 20




**ERLIJIOA** > KOMENTUAK IBARREAN

# Kontenplaziozko bizimoduak jarraitzaile ugari ditu oraindik ere Debagoienean

**BI KOMENTU** Bi komentutara jo dugu, klausurako mojen bizimodua ezagutzeko: Oñatiko Santa Anara eta Aretxabaletako Agustindarrengana

**OTOITZA OINARRI** Otoitzean ematen dute denbora luzeen; egunero, guztira, bost ordu inguru ematen dituzte zeregin horretan

**GAZTEENAK, 40 URTE** Esandako bi monasterioetan, gazteenak 40 urte ditu; nagusienak, berriz, 89 urte. Gazterik ez da sartu azken urteotan



**OÑATIKO SANTA ANA KOMENTUA** Santa Anako moj

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Agustindarren eta Oñatiko Santa Ana monasterioetan goiz jotzen dute iratzargailuek. Hango mojak 06:00etatik eta 06:30era bitartean jaikitzen dira, otoitz egiteko. Eguna zeregin horretan eta lanean ematen dute bietan.

Aretxabaletan zortzi moja baino ez daude. Nagusienak 89 urte ditu; gazteenak, 40 urte. Eguna hiru zatitan banatzen dute han: otoitza, lana eta atsedena. Pisu handien duena otoitza da. "Otoitzaren inguruan antolatzen dugu bizimodua. Jainkoak du lehentasuna, eta, beraz, ordurik onenak Jainkoari ematen dizkiogu", dio Arantxa Jaka mojak.

Ohetik jaiki eta bi ordu ematen dituzte otoitz egiten. Goiza komentuko zereginak egiten pasatzen dute, hala nola garbiketa lanak egiten, josten, gozoak edo formak egiten edo formazio ikastaroak jasotzen. Bazkaldu aurretik, otoitz egiten dute berriro.

Isiltasuna da nagusi komentuan. Bazkaldu ere isiltasunean egiten dutela dio Jakak: "Musika entzunez edo zerbait irakurriz bazkaltzen dugu". Hala ere, solasaldirako tartea egiten dute, hausnarketa egiteko. Bazkaldu ostean ordubeteko atsedena dute.

Arratsaldean, eginkizunetan berriro hasi aurretik, otoitzean biltzen dira; baita zeregin horiek amaitzean ere. Komentuan 22:00ak aldera hartzen dute erretiroa. Egunero, guztira, bost ordu ematen dituzte otoitz egiten. "Kontenplaziozko bizimodua jarraitzen dugunon egunerokoa horretan oinarritzen da", azaldu du Jakak.

**KANPOKOAREKIN HARREMANA**

Aretxabaletan ez dute kanpora begirako zereginik egiten. Horrek, hala ere, ez du esan nahi kanpokoarekin harremanik ez dutenik. Hainbat bide dituzte horretarako. Monasteriora jendea hurbiltzen da egunero: "Oñatiko Santa Anakoena eta Arrasateko Kontzezionistena izan ezik, gainontzekoak herri erdian daude eta horrek kanpokoekin gertutasuna izatea ahalbideratzen du", azpimarratu du Jakak.

**Aretxabaletako moja gehienek Internet dute; informazioa jasotzeko erabiltzen dute berau**

**Oñatiko Santa Ana monasterioan hiru oñatiar bakarrik daude; besteak kanpotarrak dira, asko gipuzkoarrak**

Klausurako mojak badira ere, behar dutenean kalera irteten dira. Esaterako, medikura joan behar dutenean edo interesgarriak iruditzen zaizkien formazio ikastaroetan parte hartzen dutenean.

**INTERNET**

Bestalde, komunikabideen bidez ere informazioa jasotzen dute etengabe. Horren harira, Internet erabiltzen dute: "Gehienek daukagu. Gure arteko komunikazioa azkartzen du horrek", adierazi du Jakak.

**SANTA ANAKO KLARATARRAK**

Oñatiko Santa Ana monasterioko mojek antzeko bizimodua dute. Han 30 emakume bizi dira; 45 eta 85 urte artean dituzte. Gazteena Oñatikoa da eta nagusiena, berriz, Getariakoa.

Santa Anako abadesa Maria Pilar Markuletak jakinarazi duenez, hiru oñatiar bakarrik daude komentuan; tartean, Markuleta bera. Gainontzeko guztiak kanpotarrak dira; asko, gipuzkoarrak. Maria Angeles Labakak gaineratu du, orain dela bi urte, zortzi moja sartu zirela batera: "Bermeoko monasterioa itxi zen eta hona etorri ziren. Urte asko zeramatzaten han jende gazterik gabe, eta, aurrera biderik ikusten ez

KOPURU ESANGURATSUA

## Debagoienean dauden sei monasterioetan, klausurako 110 moja inguru bizi dira

Ibarrean lau familiatako sei komentu daude gaur egun. Oñatik hiru ditu: Bidaurretako eta Santa Anako monasterioetako klaratarrak eta benedictarrak. Bergarak, Arrasatek eta Aretxabaletak bana dute: klaratarrak, kontzezionistak eta agustindarrak, hurrenez hurren. Guztira, 110 moja daude horietan. Oñatiko Bidaurreta da moja gehien dituena: 40. Monasterio txikienak Bergarakoa eta Aretxabaletakoa dira. Gipuzkoan, guztira, 25 elkarte daude; guztiak emakumezkoenak, bat izan ezik. Guztira, 400 moja daude. "Proportzioan monasterio eta moja asko dago gurean. Esanguratsua da ekonomikoki hain indartsu dagoen eskualde batean, hain ezaguna edo modan ez dagoen mundua ere izatea".



**ARETXABALETA** Arantxak kitara jotzen duen bitartean, Kristinak otoitz egiten du komentuko elizan. M.B.



ek lan handia dute astelehen goizean arropa garbitzen. MIRIAN BITERI

zutenez, hona etorri ziren". Horren harira, apurka monasterioak ixten joango direla aipatu du Markuletak, "jende berririk ez da-eta sartzen".

**GARBITOKI INDUSTRIALA**

Aretxabaletako komentuarekin alderatuta, berezitasun bakarra du Oñatikoak: kanpora begirako lana egiten dutela. Astelehenetik eguenera bitartean, arropak garbitzen dituzte goizez eta arratsaldez. Horretarako, garbitoki industriala dute; 32 kilo arropa garbitzen dituzten garbigailuak dituzte.

Besteak beste, Oñatiko Garai eta Zahor enpresetako langileen arropak eta Arantzazuko ostatuko maindireak garbitzeaz eta lisatzeaz arduratzen dira mojak. Egubakoitzean, esandako enpresek arropa garbia jasotzen dute eta orduan, etxeko lanak egiteari ekiten diote.

Kanpora begirako lana izango ez balitz, antzeko bizimodua dute Oñatin. Han ere 06:30ean jaikitzen dira eta otoitzean hasten dute eguna. Jarraian, eguneroko zereginetan hasten dira. Txandaka antolatzen dira horretarako: batzuk garbitokian dauden bitartean, beste batzuk sukaldari lanetan aritzen dira, eta, gauza askoren artean, inguruan ezagunak diren gozoak prestatzen dituzte. Beste batzuk, berriz, gaixoekin egoten dira.

Bada, Aretxabaletako Agustindarretan bezala, Santa Anako klaratarren artean ere otoitzak hartzen du denbora luzeen.

KOMENTU IREKIAK

## Komentu batzuen ateak zabalik daude kanpotarrendako

Debagoieneko komentu batzuek ostatua dute. Otoitz egin nahi dutenak, bizitzaren gaineko hausnarketa egin gura dutenak edo, besterik gabe, isiltasuna bilatzen dutenak joan daitezke horietara. Santa Anako monasterioa, gainera, bilkurak egiten dituzten taldeendako zabalik dago. Lau logeladun harrera etxea dute. Bizkaitik gazte asko hurbiltzen da Santa Anara.

Aretxabaletan murriztuagoak dituzte bisitak: "Funtzio zehatza du gure ostatuak, eta, beraz, ez dago edozeini zabalik. Familiakoak, ezagunak edo pertsona ezagun horien bidez etortzen den jendea hartzen dugu hemen", azaldu du Arantxa Jakak.

Komentuetara joaten direnek ez dute mojen ordutegi bera jarraitzen. Aretxabaletan mojendako inportantea da liturgian parte hartzea: "Bestela, beste ostatu mota batzuk dituzte, hala nola landetxeak", dio Jakak.

**KONTENPLARIEN EGUNA**

Bestalde, datorren maiatzaren 18an, Kontenplarien Eguna izango da. Klausurako mojek, egun horren bidez, Jainkoak duen lehentasuna goraipatzen dute. Aurten *Hitza isiltasunean* leloa aukeratu dute.



**MAIATZAREN LEHENA** > OSPAKIZUNAK

# Langilearen Nazioarteko Eguna dela-eta manifestazioak egongo dira hiriburuetan

"Soldata urriak, kontratu prekarioak, diskriminazioak eta lan istripuak" salatuko dituzte sindikatuek

**NEREA MENOR** > BERGARA

Bihar, Langilearen Nazioarteko Eguna dugu. Errebindikazio eta salaketa eguna izango da, eta, urtero bezala, sindikatuek mobilizatzera deitu dituzte langileak.

LABekoak Iruñean elkartuko dira bihar eguerdiko hamabietan, Golen zinematan. Maiatzean zehar sindikatuek kongresua egingo du Barakaldoko BECen; hori dela eta, aurten, guztiak batera elkartuko dira: "Iruñean ospatuz kutsu nazionala eman nahi diogu manifestazioari".

UGTk eta CCOOk, urtero bezala, batera ospatuko dute egun hori. Gipuzkoako guztiak Donostian elkartuko dira; eguerdiko hamabietan hasiko da manifestazioa, Alderdi Ederren, *Stop accidentes laborales, precariedad y discriminaciones* lelopean.

ELAko kideak Bilbon elkartuko dira, Jesusen Bihotzean, 11:30ean. Eta 14:30ean bazkaria egongo da BECen. Bilbora joateko autobusak Ibarreko ia herri guztietatik irtengo dira.

ESK eta EILASekoak Bilbon manifestatuko dira, 12:00etan, Kale Nagusiaren inguruan. Tuteran ere izango dira ESK sindikatukoak ordu berean.

**XIX. MENDETIK GAUR EGUNERA**

1886ko maiatzaren 1ean, AEBetako hainbat langile mobilizatu ziren 12 orduko jardunaldia 8 ordura jaisteko helburuarekin. Ordutik hona, urtero langileriaren borroka gogorarazten da.

**MOBILIZAZIOAK**

**> ELA**
Bilbon. Jesusen Bihotzan, 11:30ean. (14:30ean bazkaria, BECen).

**> LAB**
Iruñean. Golen zinematan. 12:00etan.

**> UGT-CCOO**
Gipuzkoarrak Donostian. 12:00etan, Alderdi Ederren.

**> ESK**
Bilbon. 12:00etan, Kale Nagusian. Tuteran. 12:00etan.

**INGURUMENA** > KONPOSTAJEA

# Bailaran konposta egiteko sistema bi ezarri nahi ditu Mankomunitateak

Bat edukiontzietan oinarrituta dago, eta bestea, etxerik etxeko bilketan; biak aldera daitezen nahi du Mankomunitateak, egokiena aukeratzeko

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak konposta egiteko hondakin organikoak batzeko bi sistema ezarri nahi ditu bailaran; bat, egubakoitzean Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutakoa, kalean egongo diren edukiontzi batzuetan batuko dena; eta bestea, Mankomunitateak proposatzen duena, etxez etxeko bilketan oinarritutakoa. Aldundiaren eredua Aretxabaletan da ezartzekoa; bestea, zehazteko dagoen "herri baten edo bitan" ezarriko da, Mankomunitateko Ingurumen batzordeburu Pedro Lasagabasterren esanetan.



**TRATAMENDUA** Konposta lantzeko gune bat. NATIONALRURAL

Bi erakundeok asmo horiek aurrera zelan eraman negoziatzen dabiltza. Lasagabasterrek aurreratu du, seguruenik, "urte bukaerarako" abian izango dela bilketa plana. Helburua da bi sistema horiek indarrean jartzea, "gero biak konparatu eta ikusteko Debagoienerako zein den egokiena", dio Lasagabasterrek.

**DESBERDINTASUNAK**

Aretxabaletaz gain, Azkoitian, Azpeitian, Zumaian, Zarautzen eta Donostiako Amara auzoan abiaraziko dute Aldundiaren plana. 250 edukiontzi jarriko dituzte, eta 5.000 familiak parte hartu ahal izango dute. Aldundiaren sistema horrek eskatzen du familiek borondatez izena ematea; bakoitzari hondakinak batzeko ontzi eta poltsa batzuk emango dizkiote, eta baita kaleko edukiontziak irekitzeko giltza bana ere. Bakar-bakarrik jateko gordinen hondakinak batu ahal izango dira. Prestatu bariko okela eta arrain hondakinak ere kanpoan geratuko dira.

Debagoieneko Mankomunitatearen proposamena Katalunian ikusitako sistema baten inspiratuta dago, eta etxez etxeko bilketa egitea proposatzen du. Beste alde garrantzitsu bat da metodo horrek onartzen dituela jateko gordinen eta baita prestatutakoen hondakinak ere.

Azkenik, Aldundiaren asmoa da ibarreko hondakinak Azpeitiko konpostaje gunean tratatzea, eta Mankomunitateak nahi du halako gune bat Debagoienean bertan egon dadin.

> ATXILOKETAK

### Huhezin "kezkatuta", Arruabarrenaren tratu txarren salaketa dela-eta

Apirilaren 19an, Huheziko ikasle Josu Arruabarrena oreretarra atxilotu zuten Arrasaten. Ondoren, beste hainbat gazterekin batera espetxeratua izan zen.

Bada, Eskolako Zuzendaritza Kontseiluak ondorengo adierazpena egin du atxiloketaren aurrean: "Kezkatu egiten gaitu Josuk eginiko tratu txarren salaketak (…), eta salaketa hori aztertu eta ikerketa bururaino eramatea eskatzen diegu hala dagokien erakundeei". Ustezko errugabetasuna errespetatzeko dei egin diete hedabideei.

> TURISMOA

### Bisita gidatu asko Debagoienean zubi luzera begira

Maiatzako zubia dela-eta ordutegi b erriak izango dituzte ibarreko museo eta turismo bulegoek.

Ibarraundi museoa egun osoan egongo da zabalik 1ean eta 4an, eta 2an eta 3an arratsaldez soilik. Gatz museoko bisita gidatuak 12:00etan eta 13:00etan izango dira zubi osoan. Arantzazukoak 10:30ean, 11:30ean eta 12:30ean izango dira. Arrikrutzeko kobak 10:00etatik 14:00ak arte eta 15:00etatik 18:00ak arte egongo dira zabalik. Sancti Spiritus bisitak egongo dira goiz eta arratsalde 1ean eta goizez bakarrik 3an.



Turistak Oñatin.




Erdi Aroko V. azoka
Maiatzak 10 eta 11
Arrasate 2008
ARRASATEKO UDALA

# Barne bidaiak edo gutxiengo demokratikoak

**Iñaki Arriola Irizar**
Bergara

Euskadik bizi duen egungo blokeo egoeran, oinarrizko akordio batzuk lortzeak gure gizartearen garapena ekar dezakeela sinetsita nago. Garapen hau Euskadiko hiritar eta hiritarrentzat zehaztutakoa eta erabakitakoa izango da.

Akordio hauek batzuek zein besteek barneratutako bidaiak irudikatuko lituzkete. Gutxiengo demokratiko bezala ere definitu daitezkeen bidaiak. Elkarrekin etorkizun errekontziliatzaile bat diseinatzeko, euskal gizarteak bere buruari eta gainontzekoei eskatuko lizkiokeen gutxiengo demokratikoak. Zergatik ez esan, Euskadin adostutako gizarte eraikuntza bat ahalbidetuko duen trantsizioa.

Kristau hizkeran kontzientzia azterketa bat egitea izango litzateke, eta marxistan autokritika bat egitea. Berdin da zein den bakoitzaren eredua, errekontziliazioa lortuko den gizarte batean aurrera egiteko, eta ez batzuek besteengan garaipena lortzeko (garaipenak inoiz ez baitu bakea ekartzen), guztiok egin beharko ditugu jarraian deskribatzen ditudan barne bidaia bat edo gehiago.

Lehen bidaia Euskadiko mahai politikoan biolentzia ezin dela onetsi onartzea izango litzateke. Gure gizarteak ezin du onartu biolentziaren existentzia. Euskaldun batzuek, helburu politikoak lortzeko, beste batzuenganako biolentzia erabiltzea. Euskadi deitutako mahai politikoan daudenek hitza eta ekintza bakezalea soilik onartuko dituzte. Barne bidaia hau (gutxiengo demokratikoa) bere egiten duten herritarrak soilik eseriko dira mahai horretan.

Bigarren bidaia euskal gizarteak, biktima guztiak tratatzeko orduan, beste aldera begiratu duela onartzea da. (Beti gogoratzen dut, "zerbait egingo zuen" doilorra, askok gure bizitzaren momenturen batean esan edo errepikatu duguna). Gure gizartearentzat, euskaldun guztiok Ordoñez, Blanco, Buesa edo Carrasco (Estatuarena ez den erakunde batek hildakoak) biktima bezala ez aitortzea, Lasa eta Zabala (Estatuaren aparatuetatik sortutako erakundeek hildakoak) biktima bezala ez aitortzea bezain larria baita. Gure gizarteak (guztiok, batzuk nahiz besteak) biktima batzuen bazterketa eragotzi beharko luke. Gerra Zibileko biktimekin (alde batekoak, noski) gertatutakoa pasa ez dakigun, gaur egun soilik hartu baitaitezke biktima bezala. Lehen ere esan dut, garaipenak ez dakar bakerik, erresumina baizik. Biolentzia pairatu dutenengandik eskuzabaltasun esfortzu handi bat da, baina ezinbestekoa iruditzen zait etorkizun errekontziliatu baten bila dabilen gizartearen eraikuntzan aurrera egiteko. Biktima guztien aitortzan oinarritutako trantsizio batek erresuminik gabeko etorkizun bat bermatuko du.

Hirugarren bidaiak Estatuak ETAren aurkako borrokan tresna demokratikoak soilik erabiltzea exijituko luke. ETAk egin dituen eta etorkizunean egingo dituen (zentzu honetan ez naiz batere baikorra) ankerkeriez haratago, ezin dugu onartu Estatuak legalitatearen lerro fina zeharkatzea, nahiz eta batzuetan, bulkaden eraginez, guztiok pentsatu agian merezi duela jardun politiko edo judizialean legezko lerroa zeharkatzea. Beste gauza batzuen artean, torturaren erabilera posiblea (ez dirudi atxilotutako ETAko kideei te eta pastekin egiten dietenik ongi etorria komisarian). Edo, Audientzia Nazionalak egindako ekintzak, dudazko legalitatea dutenak (edo batere legitimitaterik ez dutenak) eta batzuek hainbeste iraintzen eta besteek lausengatzen dituztenak. Euskal gizarteak gardentasuna eskatu beharko lioke Estatuari egiten duen gauza guztietan (*la carga de la prueba* kasu honetan Administrazioaren kontua izango litzateke).

Laugarrena muturreko eta kontrako konponbiderik ez dagoela ulertzea izango litzateke. Ezinezkoa da batzuentzat Konstituzio Espainiarra eta besteentzat Independentzia izatea. Guztiok ulertu behar dugu konponbidea Euskadin egongo den adostasunetik etorriko dela, barne edo kanpo oztoporik gabe. Eta gero, Euskadiko mahai politikoko parte hartzaile guztien egitekoa izango da euskal gizarteari, dagokion lekuan, kontsentsu hau leialtasunez defendatzea, inork izorra ez dezan exijituz. Batzuek ezin dute Espainiak eta bere konstituzioak (totem sakratu bihurtuak) irudikatzen duten Zumosoleko lehengusuan babestu. Eta besteek, negozia ezina den Independentzia edo ez dago konponbiderik eskaeran. Bidaia honek Estatu Espainiarra antzeko problematika duten herrialdeekin demokrazian homologatzea ekarriko luke (euskal gizarteak biolentzia ez onartzean abiarazitako bidaiak ezinezkoa egingo dio Estatuari ETAren biolentzian babestea azken bidaia honetan aurrera ez egiteko). Beste herrialdeekin homologatzearen adibidea Kanada izango litzateke. Kanadak baieztatzen du demokrazia batean ez dela onargarria, ez batzuen aldebakartasuna (Quebec) ez besteena (Kanadar Estatua). Hau da, onartzen du Quebeceko herritarrek horrela nahi izanez gero eta Kanadako Estatuarekin alde bietara negoziatuz gero Quebec independentea izatea.

Bidaia hauek batzuen eta besteen aldetik ezinbestekoak diren enpatia ariketak sortuko dituzte. Orain gauden egoeran egonda utopikoak diruditen ariketak, baina egin ezean, hurrengo belaunaldiei etorkizun garratz eta ilun bat uztera bideratuko gaituztenak. Erresuminez betetako etorkizuna, gaizki itxitako zauriekin betea, gu bezalako herri txiki batek gainditu ezin duena.

Amaitzeko, harritu egingo zaituzte nire bidaietan ETA berarekin lotutako ezer ez aurkitzeak. Ez dut ezer espero erakunde honetatik; autismoa, gorrotoa edo ezinikusia ez bada. Gizartea bera izango da bere izateari zentzua kenduko diona. ETA garaitzeko modua, modu bakarra, jaiotzen ikusi zuen gizartetik etorriko da.

# Gaitzespena vs hipokresia

**Xabier Zubizarreta**
Arrasate

Azken urteotan, Euskal Herrian bizi dugun gatazkari konponbidea emateko helburua zuen elkarrizketa eta negoziazio prozesu itxaropentsu bat ezagutzetik, berriro ere konfrontazioan oinarritzen den egoera batera pasa gara. Isaias Carrascoren heriotza eragin zuen ETAren atentatuaz geroztik, Arrasateko herria, gure udal gobernu osoa eta gure alkatea egunero ari dira izaten hainbat komunikabidetako helburu, gaitzespen exijentziak, zentsura mozioak, eta inolako oinarririk ez duten irainak botaz.

Indarkeria eta inposizioa, aspaldikoak dira, denon zoritxarrerako, Euskal Herrian.

Estatu espainolak bortizki jipoitu izan gaitu, legezko nahiz legez kanpoko tresnez. Konstituzio inposatu bat, euskaldunok onartu izan ez ditugun polizia desberdinak, estatu terrorismoa, Alderdien Legea, legez kanporatzea, tortura, kartzela politika ankerra, isolamendua, dispertsioa, arrazoi ideologikoengatiko kartzelaratzeak, etab.

Baina estatu espainoleko ordezkariei ez zaie komeni hau guztiau gogoan hartzea eta arazoaren errua ETAk garatzen duen borroka armatuari egotzi nahi diote, eta erantzule bakartzat jo.

Eta beraien esanetara makurtzen ez den oro errudun deklaratu eta kriminalizatu, iritzi askatasunerako eskubidea etengabe urratuz.

Loiolako mahaitik altxatu zirenean, beraien *España Una* beste gauza guztien gainetik ipini ziguten, berriz ere. Euskal hiritargoaren eskubideak ahaztuta.

Eta, euren buruak demokrata gisa autoproklamatu eta gero, demokrazia, duintasuna eta antzekoak manipulatuz, beraien uztarrira eraman nahi gaituzte.

Gaitzespena besteei eskatzea joko demokratikoaren barruan sartzen da.

Gaitzestea bakarrik eta alde batekoak bakarrik gaitzestea konponbideari bidea ixtea da.

Gaitzespena aurrebaldintza bezala exijitzea ez da ez zilegia, ez demokratikoa, bakoitzak eskubidea baitu egoera bakoitzaren azterketa propioa egiteko.

Ekintza armatu bat ez gaitzesteak ez du esan nahi indarkeriaren erabilpena ontzat ematea; baina, ikusten denez, gaitzespenak egiteak ere ez dakar gaitzesleek indarkeriaz ez baliatzea.

Eta ez da batere etikoa hainbat eskubide etengabe urratzen jardun eta gero oinarri etikoak aldarrikatzea; gauza bat esan eta beste bat egin hipokresia da; gezurra; izan ere, oinarrizko eskubide bakoitza da beste guztiak bezain garrantzitsu.

Arrasate, bitartean, hauteskunde autonomikoetarako kanpainan erabilia izaten ari da; PNV eta PSEk oso ondo ikasi dute Espainiako orokorretan bi alderdiren arteko polarizazioak zer-nolako emaitzak ekar ditzakeen.

Eta horretxen bila ari dira; jokaldi bera errepikatu nahi dute.

# Eskerrik asko

**Idoia Ilarduia Arrieta**
Bergara

Ni ez naiz fededuna, eta horregaitxik ez naiz mezetara juten. Baiña domekan amama hil jakun eta amaman nahi eta ohitxurei zor jakuen errespetua dala-eta, martitzenian elizara jun nitzan.

Ahaztuta neukan zelako zirraragarrixa izaten dan Santa Marinan sartzia zerraldua aurrian doiala. Oilo ipurdixa eta malkuak begixetan.

Pentsatzen dot beste elizetan be sentsaziñua antzerakua izango dala, baiña neri beti Bergarako Santa Marinan tokau izan jat bizitzia eta horregaitxik eskerrak emon nahi dotset entierro eta bestelako ospakizun guztietan emoziñuak eta sentimentuak azaleratzen laguntzen doskuen horrei; eskerrik asko ba, hor goixan, koruan, kantuan egoten zaten guztioi.

# 7.000 euro baino gehiago zor dizkigute

**Rosa Jimenez**
(Kuiskarreko langile ohien izenean)
Arrasate

Arrasateko Kuiskar SA enpresako langile ohiak gara, 53 langile hain justu. Ohiak, ez lanetik bota gaituztelako, lantegia itxi dutelako baizik. Arrazoia: gure nagusi *maiteak*, J. G. A zarauztarrak, egindako kudeaketa negargarria.

Urtea hasi denetik, soldatak ez dituztela ordainduko esan eta esan ibili ondoren, azkenean, mehatxua errealitate bihurtu dute. Egun, enpresa itxita dago eta guri hilabete eta erdiko soldata zor digute. Horrez gain, kitapena eta kalte ordaina ere zor digute. Ondorioa: enpresan zazpi urte lanean eman ondoren, kale gorrian utzi gaituzte ezer ordaindu gabe. Nagusiak dirurik ez duela adierazi digu, baina badakigu bere ingurukoen izenean ondare ugari dituela. Izorra adi!

Kontu honek beste alde bat ere badu. Kuiskar enpresari lan guztia Tesa-Assa Abloy multinazionalak ematen zion. Erraldoi horrek gure nagusiaren kudeaketa penagarria ikusi ondoren, negozio biribila egin du. Nagusia paretik kendu eta guri sekulako *eskaintza* egin digu. Lanean jarraitu ahal izateko gure eskubide guztiei uko egitea zen Tesaren asmoa. Antzinatasunari uko egin, kalte ordainei uko egin... Gainera, langile autonomo izatera behartzen gintuzten... Hori bai pagotxa! Dena eman behar genuen hutsaren truke. Noski, pikutara joateko esan diogu.

Badakigu emakume izateak ere kalte egin digula oraingoan ere. Langile finak izan gara beti eta azkenean ere, gutaz aprobetxatu dira. Baina nahikoa da!

Emakumeak gara, emakume langileak, eta duintasuna da gure ikurra!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

Gizon baikorra da Miguel Santos. Momentu on asko bizi izan ditu kirol munduan: "Onena Ilunbe 11.000 jarraitzailerekin beteta ikusi nuenekoa izan zen". Momentu txarrak ere positibo bihurtzen ditu, "oso baikorra" da-eta. Berriz ere Bruesa gorengo mailara igotzea da Santosen nahia eta ilusioa, baina maila gorenean egon zireneko "akatsak errepikatu gabe".

**Miguel Santos** > Bruesa Gipuzkoa Basket-eko presidentea

# "Bizitza osorako hezkuntza, formazioa eta ongizatea eman dizkit kirolak"


Miguel Santosek Eskoriatzan egin zuen pasa den astean hitzaldia.
MIRIAN BITERI

**JASONE ZABALA** > ESKORIATZA

**Miguel Santos Oderiz duela 56 urte jaio zen Iruñean. 1979. urtean Donostiara joan zen. 25 urtean zehar futbol jokalarien bitartekari lanak egiten jardun ondoren, 2001. urtean Gipuzkoa Bruesa GBC proiektuan sartu zen buru-belarri, eta bertako presidentea da. Azkenaldian, kirolak eman diona kontatzeko hitzaldiak egiten dabil.**

**Herririk herri zabiltza berbaldiak egiten. Gustura?**

Hitzaldi baterako deitu didaten bakoitzean atseginez onartzen dut hitzaldiak egiteko gonbidapena, niri ere ondo etortzen zaidalako halako hitzaldiak egitea. Nire ezagutzak jendearengana hurbiltzen saiatzen naiz. Gustura eta oso identifikatuta sentitzen naiz. Gainera, joan den astean Eskoriatzan egin nuen hitzaldian, gustura sentitzeaz gain, inguruak ere halaxe sentiarazi ninduen. Polita izan zen.

**Manolo Muñoz Eskoriatzako saskibaloi elkarteko presidentearekin harreman estua duzu. Premiazkoak ikusten dituzu herrietako elkarteak?**

Manolo Muñoz eta Gipuzkoako beste herri batzuetako jenderik barik, hezkuntza kirolik eta formazio kirolik ez litzateke egongo. Horregatik boluntario lana preziorik ez duen lana da. Oso polita da Bruesa hor goian ikustea, aurrekontu handiarekin, eta bertan lan egiten dutenekin, baina berriz diot, Manolo bezalako jenderik gabe ez genuke etorkizunik izango.

***Bizi osoa kirolari emana* (*Una vida dedicada al deporte*) da berbaldiaren izenburua. Zer eman dizu kirolak?**

Niri kirolak bizi guztirako hezkuntza eta formazioa eman dit, eta horrekin batera ongizatea, noski.

**Poztasunak, ospea... Egurra edo une txarrak ere bai?**

Poztasun handiena, eta negar egin nuen eguna, Ilunbe 11.000 jarraitzailez beteta ikusi nuenekoa, eta txarrik ez daukat, oso positiboa bainaiz. Momentu txarretatik ere gauza onak ateratzen ditut.

**Bruesa GBC taldea buru-belarri sartuta dago igoera faseko *play-off*-ean. Lortuko duzue?**

Garrantzitsua ilusioa da, baina ez bakarrik kirolean, bizitzan ere bai. Ilusiorik barik ez dago proiekturik. Ez banu igoeran sinetsiko, oporretara bidaliko nituzke jokalariak. Aurten gure helburua *play-off*-eko postuetan egotea zen, eta hori lortu dugu. Baina dagoeneko nahiko saria da Ilunbe 7.000 pertsonarekin beteta ikustea hamabostean behin.

**Bruesa berriro ere saskibaloiko maila gorenera igotzen bada, zer ez zenuke aurreko esperientziatik errepikatuko?**

Ez zen kudeaketa akatsa izan, baizik eta maila gorenean jokatzearen esperientziarik eza. Gainera, seguru nago ez direla berriz gertatuko.

**Zer falta zitzaion orduan Bruesari?**

Batez ere esperientzia. Baina baita Miguel Santosen jenio txarra Estatuko estamenturen baten aurrean...

**Ze ezberdintasun dago klub profesional bat edo beste enpresa bat zuzentzearen artean?**

Bruesa Gipuzkoa Basket enpresa bat da eta halaxe zuzentzen dugu. Enpresa horren barruan kirol parte bat ere badago. Kirol emaitzek talde baten kirol egoera alda dezakete, baina inoiz ez enpresa bezala aurrera eramaten duen kudeaketa lana. Mailaz igotzen badu taldeak eta gaizki kudeatzen badut, klubak ez dauka bizitzarik. Ondo kudeatuta, nahiz eta ez igo, klubak bizitza dauka.

**Bruesa saskibaloi taldeko presidentea zara; Realeko presidente izateko hautagaia izan zinen. Ikusten duzu zeure burua Realeko presidente?**

Inoiz ez dut oposiziorik egingo Realaren presidente izateko. Nire ustez erakundeak pertsonen gainetik egon behar du. Arazoa etortzen da presidente izate hori gai pertsonal bihurtzen denean. Bere garaian adimen handiagoarekin jokatu behar zen, eta ez zen hala izan, horregatik egin zuen porrot Fuentesen proiektuak.

**Badiolak Bruesa Gipuzkoa Basket Realaren kirol egitura barrura sartzeko proposamena egin du, eta zuek ez zarete horren alde azaldu. Zergatik?**

Gu ez gaude kontra. Gure ideien barruan ez zegoen halakorik. Hori horrela, nire iritzia eman nion Badiolari. Saltzearen edo ez saltzearen erabakia ez da nirea. Bruesa sozietate anonimoa da eta administrazio kontseilu bat dago, eta akzionistek erabaki behar dute hori guztia.

**Ze iritzi daukazu Badiolak Anoeta erosi nahi izateari buruz?**

Badiola kudeatzaile dinamikoa da, gauza asko esaten ditu eta buruan hainbat ideia daukza. Hark ikusiko du zer egiten duen. Aipa dezaket, Bruesa Gipuzkoa Basket-en eta Realaren etorkizuna etxe laguntzaileek ematen duten diruaz aparteko diru sarrerak lortzean dagoela. Hau horrela, nik Gipuzkoarenan sinesten dut.

HITZALDIAK

**"Nire ezagutzak jendearengana hurbiltzen saiatzen naiz hitzaldiekin"**

BRUESA, GORENGO MAILAN

**"Ez zen kudeaketa akatsa izan, maila gorenean jokatzearen esperientziarik eza baizik"**

BADIOLA

**"Badiola kudeatzaile dinamikoa da, gauza asko esaten ditu eta buruan hainbat ideia dauzka"**

ARANZADI ikastola

# ARANZADI IKASTOLA
# BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIOA
## Maiatzaren 5etik 9ra

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA
Osasun eta Natur Zientziak
Zientifiko-teknikoa
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

Kultura eta aisialdirako jarduera osagarriak

Batxilergo ondoko ikasketa guztietarako prestakuntza

*“Neri gehixen gustatzen jatena da irakasliekin eta orokorrian dagon giro gertu eta konfiantzazkua” I.S.*





Ikastolaren kudeaketan ikasleen parte-hartzea








*“Ba, nik, biharra daukatenian, ikastolia nahiz irakasliak prest topatzia da gehixen baloratzen dotena” A.B.*

Emaitza akademikoak gure kalitatearen adierazle

## KALITATEZKO EUSKAL HEZIKETA

Ikastolen Elkartea

San Martin plaza 4 Tel.: 943 76 90 71 / 66 - Faxa: 943 76 91 77
bergara@ikastola.net / www.aranzadiikastola.org

PARTAIDE Ikastolak



**> ARRASATE**
Gaur deklaratuko du Ino Galparsoro alkateak Auzitegi Nazionalean **> 12**



**> BERGARA**
Txosna batzordeak Pazko jaietako egitaraua aurkeztu du **> 14**



**> OÑATI**
Murgia auzoko elkartea domekan inauguratuko dute auzotarrek **> 16**



**> ARAMAIO**
Santikurtzeko ermita auzolanean konpondu nahi dute maiatzean **> 23**

**OÑATI** > ERAKUSKETA

# Gorpuzti jaiaren nondik norakoak erakutsiko dituzte erakusketa baten

**BOST HILABETEZ** Maiatzaren azkenean hasi eta urrira arte iraungo du erakusketak

**SAN MIGEL** Iazko bera izango da San Migel: Jose Antonio Agiriano, hain zuzen ere

**30.000 EURO** Erakusketak 30.000 euroko aurrekontua du; dagoeneko hasi dira egokitze lanetan



**ARMADURA** San Migelen jantziak dira Gorpuzti eguneko berezienak; guztira, 25 kilo eramaten ditu soinean. GOIENKARIA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Oñatiko Gorpuzti jaia hobeto ezagutzeko aukera egongo da maiatzaren amaieran hasi eta urria bitartean. Mikel Goiaingeruaren parrokiako klaustroan, Gorpuzti jaiaren nondik norako guztiak bilduko dituen erakusketa zabalduko dute maiatzaren 31n. Bost mende baino gehiagoan Gorpuzti egunez Oñatiko kaleetan prozesioan atera izan dituzten osagai guztiak egongo dira han. "Turismo agentziak behin baino gehiagotan eskatu izan du parrokiako klaustroari balio erantsia ematea; hau da, bisitez gain, beste zer edo zer egitea bertan. Modu iraunkorrean ez izan arren, aldian aldiko horrelako erakusketak egitea da aukera bat. Gainera, Apostolutza kofradiak azkenaldian egindako eskakizunari erantzuna ere bada", dio Ernesto Murgiondo Oñatiko Kultura zinegotziak. Hala, joan den urte amaieran hasi ziren gaia lantzen; Hurbil Kulturgaiak enpresarekin harremanetan jarri eta aurrekontua eskatu zuten.

**15 PAUSO EGONGO DIRA**

Apostolutza kofradiako Jesus Irizar *Txutxin*-ek ondo ezagutzen du Gorpuzti eguna eta egun horren inguruan dagoen lana. Kofradiatik bertatik bultzatu dute erakusketa: "Herritarrek dantzariak eta apostoluak ezagutzen dituzte, baina horren atzean dagoena herritarrei ezagutaraztea da erakusketaren helburua", dio *Txutxin*-ek. Guztira 15 pauso egongo dira erakusketan; gainera, parrokoa joaten den palioa eta apostoluen jantziak eta bestelakoak ere egongo dira. Sei metroko erakusleiho batean, manikiak egongo dira, dantzarien, apostoluen, Kristoren eta San Migelen jantziekin.

**EZ DA EGUNERO ZABALIK EGONGO**

Dagoeneko hasi dira egokitze lanak egiten parrokiako klaustroan. Argiztapen berezia jarriko dute, erakusketako elementu guztiek garrantzia izan dezaten. Erakusketaren aurrekontua 30.000 euro da. Bestalde, erakusketako elementuen argibideak idazteko ardura Gerardo Elortza historialariak hartu du. Erakusketa ez da egunero ezta hilabete guztietan zabalik egongo. Baina, horren guztiaren berri, maiatzaren 21ean parrokiako klaustroan egingo duten prentsaurrekoan emango dutela gaineratu du Kultura zinegotzi Murgiondok.



**PALIOA** Parrokoa joaten den palioa erakusketan egongo da. GOIENKARIA

**DANTZARIAK, ENTSEGUETAN**

Gorpuzti jaian ia San Migel bezain garrantzitsuak dira dantzariak. Oñatz dantza taldeko dantzariak arduratzen dira Oñatiko kaleak kriskitin soinuaz alaitzeaz. Ia hilabete da dantza entseguekin hasi zirela dantza taldeko kideak: "Astean hiru entsegu egiten ditugu: bi Gorpuzti eguna preparatzeko, eta beste bat, bestelako dantzak ikasteko", azaldu du *Txutxin*-ek. Bost dira Gorpuzti eguneko dantzak, eta domeka arratsaldean plazan egiten duten aurreskua ere entseatzen dute. Dozenatik gora dantzari dabil entseguetan egun hauetan. Urtean zehar Santa Anako komentuan egoten dira prozesioko arropak. Mojen ardura da Gorpuzti domekarako arropak garbitu eta txukun uztea.Egunean bertan, kofradiako arduradunak joaten dira arropak jasotzera; gero, Santa Ana aretoan janzten dira San Migel, Kristo, apostoluak eta gainerakoak. Aurten, ez da berrikuntzarik izango, eta San Migel iazko bera izango da: Jose Antonio Agiriano.

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 1 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Egubakoitza, 2 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Zapatua, 3 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 4 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 5 | Irizar | Ergin, 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 6 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 7 | Español | Araba, 14 | 943 79 18 65 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 1 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 2 | Zabala | Barrenkalea, 25 | 943 76 16 87 |
| Zapatua, 3 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 4 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 5 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 6 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 7 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 1 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 2 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Zapatua, 3 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 4 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 5 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 6 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 7 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eguena, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 2 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Zapatua, 3 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 4 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 5 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 6 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 7 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia eskuratzeko, bidali SMS bat 7505 zenbakira "farma" hitza jarriz. SMS kostea 0,9 euro + BEZ.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia) ........ 943 46 11 11
DYA (Antzuola) ........ 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) ........ 943 76 55 76
Suhiltzaileak ........ 943 78 28 00
Ertzaintza ........ 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala ........ 943 03 53 00
- Antzuola ........ 943 76 62 23
- Aramaio ........ 945 44 53 40
- Aretxabaleta ........ 943 71 19 59
- Bergara ........ 943 03 54 00
- Elgeta ........ 943 03 54 00
- Eskoriatza ........ 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Arrasate ........ 943 79 14 39
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 63
- Bergara ........ 943 77 91 06
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA ........ 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate ........ 943 79 12 22
- Aramaio ........ 945 44 50 33
- Aretxabaleta ........ 943 77 12 64
- Bergara ........ 943 79 12 22
- Eskoriatza ........ 943 71 40 59
- Oñati ........ 943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea ........ 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) ........ 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera ........ 943 76 10 15
Zerga Bulegoa ........ 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate ........ 943 77 11 43
- Bergara ........ 943 76 44 42
- Oñati ........ 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio ........ 945 44 53 35
- Arrasate ........ 943 77 16 77
- Aretxabaleta ........ 943 71 26 28
- Bergara ........ 943 76 56 41
- Elgeta ........ 943 76 82 84
- Eskoriatza ........ 943 71 53 28
- Oñati ........ 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola ........ 943 76 60 65
- Aramaio ........ 945 44 53 74
- Arrasate ........ 943 77 01 05
- Aretxabaleta ........ 943 71 10 27
- Bergara ........ 943 77 91 58
- Eskoriatza ........ 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Aramaio ........ 945 44 50 16
- Arrasate ........ 943 79 09 00
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 62
- Bergara ........ 943 77 91 00
- Elgeta ........ 943 76 80 22
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



### Eguena, 1

Hego-mendebaldeko haizeari esker, tenperatura igotzen joango da. Goizean laino apur batzuk egon arren, arratsalderako garbitu egingo da zerua, eta giro ona izango dugu.



### Egubakoitza, 2

Haizeak hegoaldetik joko du. Giroa egonkortu egingo da zeharo, eta, tarteka hodei batzuk agertu arren, egun polita izango dugu.

## EUSKAL HERRIAN

Bihar hodeiak egongo diren arren, eguzkiaz gozatzeko aukera izango dugu. Goizaldean zertxobait busti dezake, baina giro eguzkitsua gailenduko da. Tenperatura maximoa 18 gradura hurbilduko da. Egubakoitzean, joera hori areagotu egingo da eta giro gozagarria izango dugu.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Egubakoitza, 25 — **7 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 26 — **30 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **3,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 23 | 20 ºC | 12 ºC | 0,6 l/m² |
| Eguena, 24 | 21 ºC | 10 ºC | 0 l/m² |
| Egubakoitza, 25 | 28 ºC | 7 ºC | 0 l/m² |
| Zapatua, 26 | 30 ºC | 8 ºC | 0 l/m² |
| Domeka, 27 | 27 ºC | 8 ºC | 0 l/m² |
| Astelehena, 28 | 15 ºC | 10 ºC | 3,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA MAIATZEAN



| Ilberri | Ilgora | Ilbete | Ilbehera |
|---|---|---|---|
| 5 | 12 | 20 | 28 |

# oharrak eta deialdiak

ARRASATE
### > Mozart eta Bruckner entzutera joango dira

W.A. Mozarten *Fa handian pianorako 19. kontzertua* eta A. Brucknerren *Mi txikian 7. sinfonia* entzutera joango dira Euskalduna jauregira maiatzaren 23an Iturripe elkartekoak, eta autobusa antolatu dute. Izena emateko aukera dago 620 55 99 79 telefono zenbakian.

OÑATI
### > 'Bazterketaren iparra eta hegoa' ikastaroa

Tau fundazioak eta Gipuzkoako Caritasek *Bazterketaren iparra eta hegoa* delako ikastaroa antolatu dute maiatzaren 10erako eta 11rako Gandiaga Topagunean. Izena emateko aukera dago honako telefonoetan: 943 28 99 56 edo 943 44 07 44.

BERGARA
### > 1927an jaiotakoek batzarra egingo dute

1927an jaiotakoek bazkaria izango dute maiatzaren 3an Zumelaga jatetxean, ordu bietan. Izena emateko, 15 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0009 19 0091122234. Apirilaren 30a da horretarako mugaeguna.

OÑATI
### > 82an jaiotako guztiei dei egiten diete

1982an jaiotako talde bat kinto ospakizuna antolatzen dabil, eta urte hartan jaiotako guztiei dei egiten diete euren izen-abizenak eta helbidea bidaltzeko *kinttuak82@gmail.com* helbidera, Datuen Babes Legea dela-eta ezin dituztelako datu horiek Udaletik lortu.

ARRASATE
### > Emakumeendako mendi ibilaldia antolatu dute

Araotz-Andarto-Degurixa mendi ibilaldia antolatu dute maiatzaren 17rako, zapatua. Ibilaldia emakumeei zuzenduta dago, eta argibideak-eta euskaraz izango dira. Izena emateko aukera dago Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonora deituta, edo *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikoan.

BERGARA
### > Gurasoek Berriketan egiteko aukera

Euskaldun zaharrek euskaldun berriei laguntzeko Berriketan programan, Guraso lagun proiektuari ekin diote; hau da, guraso batzuk bateratu eta umeendako begiralea jartzea. Argibideetarako, deitu Jardunera (943 76 36 61).

ARRASATE
### > Tai txi ikastaroa, arratsaldeetan

Arratsaldeetan tai txia egiteko taldea osatzeko izena eman daiteke Aukean. Astean bi egunean izango da, 18:30etik 19:45era; abonatuek 38,75 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, 48,75.

DEBAGOIENA
### > Getafeko Electric Weekend-era autobusa

Maiatzaren 30ean eta 31n Getafen (Madril) izango den Electric Weekend jaialdira joateko autobusa antolatu dute herritar batzuek. Argibideak: 615 00 67 60 telefono zenbakian edo *xabikip@hotmail.com* helbidean.

ESKORIATZA
### > Emakumeendako norbere burua defendatzeko ikastaroan izena emateko aukera dago

Emakumeei zuzendutako norbere burua defendatzen ikasteko jardunaldiak emango ditu Rafa Carriet adituak maiatzaren 10ean eta 11n, eta izenemate epea zabalik dago honako telefonoan: 627 44 21 42. Ikastaroa Eskoriatzako pilotalekuan izango da, 10:00etatik 13:00etara bitartean.

ARETXABALETA
### > Iratxera irteera egingo dute erretiratuek

Iratxera irteera egingo dute Basotxoko erretiratuek maiatzaren 7an. 24 euro da. Argibide gehiagorako, jo euren egoitzara.

OÑATI
### > 1979an jaiotakoek bazkaria egingo dute

1979an jaiotako oñatiarrek batera bazkaltzeko aukera izango dute maiatzaren 17an. Aker tabernan batuko dira 12:30ean, eta Soraluzen bazkalduko dute. Izenematea zabalik dago, 50 euro sartuta Kutxako 2101 0057 57 0124516295 kontu korrontean.

ESKORIATZA
### > Palestinaren gaineko hitzaldi eta diaporama

*Palestina, 60 urte erresistentzian* delako hitzaldia eta diaporama egingo du Gorka Quevedo kazetari eta Komite Internazionalistetako kideak astelehenean, maiatzak 5, Ibarraundi museoan, 19:30ean.

ARRASATE
### > Gazte ekimenaren gaineko hitzaldia

Hiru mahai-inguru antolatu ditu AEDk, eta lehenengoa eguaztenean, hilak 7, izango da, gaztetxean, 19:00etan. Gazte ekimenaren gainean berba egingo dute Lander Juaristik, Arkaitz Biainek eta Mikel Arregik.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Zer iruditzen zaizu Aretxabaletako plazako eraberritzea?



**Jose Hernandez**
Langilea
Aretxabaleta

Ondo dagoela. Lehen, plazari ez zitzaion probetxurik ateratzen. Herriko giroa, plazan egon beharrean, kaleetan dago, eta giro hori lortzen saiatu behar da. Hobetzeko baldin bada, ondo dago.



**Tere Saez**
Langilea
Aretxabaleta

Gaizki ez zegoen, baina beti dago ondo aurpegi garbiketa bat egitea. Ondo ikusiko nuke umeendako zerbait egingo balute, batez ere, euria egiten duenerako, jolasteko lekua izan dezaten.



**Eider Iturbe**
Langilea
Aretxabaleta

Ondo iruditzen zait plaza berritzea. Pergola eta sarrerako aldapatxoa kentzea beharrezkoa ikusten nuen. Zuhaitzak kentzea, baina, pena handia eman dit. Espero dut berri batzuk ipiniko dituztela.



**Faustina Frias**
Erretiratua
Aretxabaleta

Ondo ikusten dut. Plaza ez zegoen ondo aprobetxatuta, nire ustez. Pergola ere alperrik zegoen. Hala eta guztiz ere, zuhaitzek itzala ematen zuten bero handia zegoenean, eta egokiak ziren.



**Xabier Arenaza**
Ikaslea
Aretxabaleta

Plaza berritzeak bizitasun apur bat emango diola uste dut. Bertan zegoen pergola aspaldikoa zen, mitikoa! Orain, gutxi aprobetxatzen zen plaza; txikiak ginenean, futbolean jokatzen genuen bertan.

txistuak



GOIENKARIA

## Santa Marina eliza ondoko zuloak

Bergarako irakurle batek bidali digu aste honetan kexa. Santa Marina eta Usondo parkearen tartetik doan bidean, jende asko ibiltzen da egunero, eta zuloz beterik dago: "Askotan, euria egiten duenean, putzuz betetzen da eta, bertatik pasatzen den jendearentzat, batik bat nagusientzat, arriskutsua da". Dagokionak konpon dezala eskatzen du irakurle horrek.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 40

Horixe da Oñatiko Bidaurretako monasterioan dauden klausurako moja kopurua. Debagoienean, kontenplaziozko bizitza daramaten moja gehien dituen komentua da Bidaurreta monasteriokoa. Klaratarren familiakoak dira han bizi diren mojak.

usteak uste

Ubane Madera

## Goi mailako politika vs herri politika

Zaila da gure inguruko udaletan politikarekin lotutako mozioekin gertatzen dabilena aztertu eta haren gainean azalpenen bat ematea. Zaila da hori egitea alderdi politikoen exekutibetatik mezu bat bidaltzen digutenean eta herri mailan, berriz, alderdi berak beste diskurtso bat erabiltzen duenean.

Neure aldetik atera dudan ondorio nagusia da geroago eta ageriago dabilela geratzen goi mailako politikagintzak herritarrekiko duen urruntasuna, edo sikiera, dituen desberdintasunak; eta baita ere, goi mailako politikan gehiago dihardutela lanean kanpora begira eta herri mailakoan eguneroko tasunarekin lotuta jarduten dutela. Akaso urruntasun hori izango da, baita ere, azkeneko urteetako hauteskundeetan nabarmen geratu den abstentzioaren igoeraren esplikazioetako bat?

Ez dakit. Baina argi dagoena da zerbait egin beharko duela, inguruko herritar soilen artean, egunerokoarekin kezkatuta bizi diren herritarren artean, nahasmena besterik ez dut sumatzen-eta. Nahasmena, harridura eta asperdura. Gainera, irudi hori ematen badute politikariek, zer exijitu behar diote gero gizarteari?

5 galdera...

## Eva Arevalillo

Renteri tindategikoa
Bergara

**1. Lehen Jaunartze garaia da. Jende askok ekartzen du jaunartzeko arropa garbitzera?**

Bai, hala da. Soinekoak eta marinel jantziak asko ekartzen dituzte. Normalean, udaberrian hasten dira arropak ekartzen, baita udan ere, azarora arte.

**2. Zein da tindategira gehien ekartzen duten jaunartze arropa: neskena ala mutilena?**

Jaunartzea baino lehen, neskena ekartzen dute, eta jaunartzea pasa ondoren, berriz, mutilena. Mutilen arropa neskena baino errazagoa da garbitzeko, eta horixe da, beharbada, alde horren arrazoia.

**3. Duela urte batzuetatik hona aldatu egin da jaunartzeko jantzien moda?**

Ez dago moda aldaketa handirik. Normalean, eta batez ere neskena, ahizpen artean, lehengusina artean... batak besteari uzten dio, eta, beraz, ez dago aldaketa handirik. Beharbada, mutiletan gehiago.

**4. Zenbat lehenago ekartzen du jendeak garbitzera jaunartze arropa, bada?**

Normalean, jaunartzeko argazkiak ateratzera joan baino hilabete lehenago ekartzen dizkigute garbitzera arropak. Jaunartze ostean ere, bai mutilek eta baita neskek ere ekartzen dute.

**5. Zein da jaunartzeko arroparendako garbiketa egokiena?**

Ur eta xaboiarekin arazorik gabe garbi daitezke nesken zein mutilen jaunartze arropak. Garbigailuan ere sar daitezke, baina kontu handia izan behar da; garbigailuak duen programa leun batean sartzea da egokiena.

Zetazkoak diren trajeak eskuz garbitzea komeni da. Organdizkoak edo sintetikoak badira, berriz, ez dago arazorik. Duela urte batzuk, arropa gehienak organdizkoak izaten ziren, baina gaur egun gehienak sintetikoak dira.



**EPAITEGIAK** > ALKATEA, AUZITEGI NAZIONALEAN

# Bide judiziala EAEren kontra, alkatearen ustez

Ino Galparsorok uste du EAE ilegalizatu nahian dabiltzalako deitu dutela epaitegira

10:00etan eta 19:00etan mobilizazioak egingo dituzte, gaur, plazan



**INO GALPARSORO** Alkatea bere bulegoan, Madrilerako bidaiaren bezperan. U.M.

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Gaur, eguaztena, azken ordukorik ezean, Ino Galparsoro alkateak Auzitegi Nazionalean deklaratu du, Baltasar Garzon epaileak eskatuta. 10:00etan zuen hitzordua. Alkateari bidali dioten jakinarazpenaren arabera, "kautelazko neurriak apurtzearren eta agintari judizialari desobedientzia" egitearren deitu dute inputatu moduan. Alkatea babesteko autobusa atera da Madrilera, eta gaur, 19:00etan agerraldia egingo dute, plazan.

Galparsorok kokatu du epailearen deia EAE ilegalizatzeko prozesuan: "Uste dut zerikusia duela nire izena komunikabideetan agertu delako. Baina uste dut hori kokatu behar dela EAE-ANV ilegalizatu nahian dagoen prozesu horren barruan, ez dut inongo zalantzarik. Aitzakia moduan erabiltzen dute Arrasaten eta egunotan komunikabideetan ibili izana".

Epaiketan gertatuko dena, berriz, "inkognita moduan" ikusten du alkateak, ez dakitelako "atzean zer dagoen". Hala dio: "Ez dakit zertaz galdetu behar didan eta zer eska dezakeen edo zer duen buruan, eta horren aurrean prestatuta egotea zaila da".

Arrasateko alkateak gaineratu du momentu honetan "edozer gauzak balio duela ezker abertzalearen kontra egiteko". Galparsorok dio "agerian" gelditzen dabilela "epaiketak eta epaileak erabiltzen dituztela" ezker abertzalearen kontra egiteko. Eta animatu gura du jendea "gai hauen aurrean jarrera aktiboa hartzera". Galparsorok dio "herri honi benetako irtenbidea bilatu beharrean" daudela, eta politikariak "ez dabiltzala nahiko maila ematen ari". Horren aurrean "gizartearen mobilizazioa" aldarrikatu du.

**ZENTSURA MOZIOA**

Bestalde, PSE-EEk Arrasaten aurkeztu gura duen zentsura mozioaren harira, Paco Gartzia bozeramaile sozialistak oraingo astean GOIENKARIAri konfirmatu dio hasi direla hainbat alderdi politikorekin harremanetan.

**EZOHIKO OSOKO BILKURA**

Bestalde, joan den asteko bilkuraren harira, GOIENKARIAko artikuluan (18. orria) PSE-EEren iritzia birritan atera genuen, EAErena atera beharrean. EAEk bilkuran berretsi egin zuen halako mozioekin ez dela ezer lortuko, horiek ez dutela "gatazka konponduko" eta, oro har, "herritarren nahi eta borondatearen aurkakoak" direla. Barkatu gaizki esanak.

**ZERBITZUAK** > UDALTZAINEN LAN POLTSA

# Udaltzainak behar dituzte, premiak sortzen direnean haiei erantzuteko

Lan-poltsa osatu gura du Udalak; maiatzaren 7a da izena emateko azkeneko eguna

**U.M.** > ARRASATE

Udaltzainen lan-poltsa osatu gura du Udaleko Enplegu Sailak, aldi baterako premiak direnean (ordezkotasunak, lan pilaketak, e.a.) erabili ahal izateko.

Hautaketa prozesua oposizio bidez egingo dute, hau da, proben bitartez; merituritk ez dute, beraz, kontuan hartuko.

Egin beharreko probak, berriz, honako hauek izango dira: proba fisikoak (abdominalak, ariketak press bankuan, flexibilitate probak, 50 metroko abiadura proba eta 800 metroko lasterketa); euskara mailari dagokionez, 2. HEren parekoa eskatuko dute; Udaleko kale izendegiaren ezagutza ere aintzat hartuko dute; eta azken proba bat ere izango dute, elkarrizketa eran-edo, epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera.

**BALDINTZAK ETA EPEAK**

Baldintzei dagokienez, honakoak bete behar dituzte probetara aurkezteko: 16 eta 32 urte bitartean izatea; gizonezkoek 1,65 metroko gutxieneko garaiera izatea eta emakumezkoek 1,60 metrokoa. Ikasketa arloan, Eskola Graduatuaren, lehen mailako lanbide heziketaren edo baliokide baten tituluaren jabe izatea; eta indarrean dagoen B gidabaimenaren jabe izatea. Izenematea zapatuan (apirilak 26) zabaldu zuten; eta maiatzaren 7a da izena emateko azken eguna. Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira instantziak.



**UDALTZAINAK** Lan pilaketei-eta aurre egiteko behar dituzte udaltzainak. U.M.

**GERTAERAK** > TENTSIO-UNEAK GAZTETXEAN

# Zapatuko gertaerek gaztetxearekin ez dutela zerikusirik azpimarratu gura dute

Bilbo inguruko 30 bat 'skinhead' etorri ziren Arrasateko gaztetxera, bost lagunen bila

Tentsio-une handia bizi izan zen, eta gaztetxo batzuek ezin izan zioten negarrari eutsi

**U.M.** > ARRASATE

Asteon bolo-bolo ibili da Arrasateko kaleetan joan den zapatuan gaztetxean gertatu zen tentsiounea. Eta izan ere, halaxe izan zen, gaztetxea kudeatzen duen Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuko (AGAKO) kideek GOIENKARIAri konfirmatu diotenez. Mikel Arregi AGAKOko kidearen esanetan, zapatuan 01:00 inguruan, 30 bat lagun etorri ziren gaztetxeko sarrera ordaintzen den lekura: "Jarrera militarra zuten, armatuta zeuden (labanak, ukabil amerikarrak eta beisbol bateak), tipo handiak ziren; antza, Bilbotik etorritako *skinhead* taldea zen. Kanpoan zeudenek abisatu ziguten borroka bila zetozela, eta bost lagunen bila zebiltzala. Kanpora atera eta batek eurekin berba egin zuen esateko mesedez handik joateko, ez genuela gura borrokarik gaztetxean, eta kanpora irteteko. Poliki-poliki kanpora atera genituen eta argi utzi ziguten gaztetxeari ez ziotela gura ezer egin, arazoa bost pertsonarekin bakarrik zutela eta haien bila zetozela".

**GAUZAK BARETZEN AHALEGINDU**

Zapatuan gaztetxean kontzertu bat zegoen, Guatemalan egiten dabiltzan liburutegi batendako dirua batzeko: "400 pertsona zegoen kontzertua ikusten eta nahiko urduri ipini zen jendea. Talde bat ahalegindu zen kanpora irteten, borroka egiteko. Egin genuena izan zen ateak itxi, barruko jendea lasaitu, eta kanpokoak ahalegindu bidaltzen". Bien bitartean, gaztetxekoek udaltzainei ere deitu zieten, eta haiek, berriz, Ertzaintzari: "Esan zuten etorriko balira gaztetxea hustu egingo zutela. Hori ikusita, kontzertua bertan behera utzi genuen, jendea poliki-poliki kanpora atera eta ahalegindu ginen gauzak baretzen".

**KONTZERTUA, BERTAN BEHERA**

Hori horrela, kontzertua bertan behera utzi behar izan zuten eta azkeneko taldea, Never Surrender, geratu zen jo barik: "Behintzat nahiko berandu gertatu zen guztia eta diru apur bat lortu ahal izan genuen Guatemalarako. Baina zoritxarrez halako gertaera batengatik Guatemalako liburutegiaren aldeko kontzertua ez zen ondo bukatu eta, gainera, gaztetxearen 17. urteurrenaren amaiera ekitaldia ere bazen kontzertu hura, eta hori ere ezin izan zen ondo bukatu", adierazi du Mikel Arregi gazteak.

**"HALAKO JARRERAK, SOBERAN"**

Bestalde, AGAKOk azpimarratu gura du gertatutakoak ez duela zerikusirik Arrasateko gaztetxearekin, eta are gehiago, ez dutela halako besterik hemen gura, Arregik azaldu duen moduan: "Argi utzi gura dugu kanpotik etorri zirenak ez zirela etorri hona gaztetxearengatik, baizik eta arazo pertsonal bat zutelako gaztetxean zeuden batzuekin. Behin hori argitu eta gero, guk egin genuena izan zen borroka saihestu, borroka bila etorri zirenak kanpora bota eta barruan zegoen jendea baretu. Argi utzi gura dugu, baita ere, halako jarrerak soberan daudela gaztetxean, guk ez dugula zerikusirik halako kontuetan dagoen jendearekin eta kanpotik etorri zirenek esan arren gaztetxearekin ez dutela inolako arazorik, hori gezurra dela; izan ere, borroka gaztetxe barruan hasiz gero, pasatu ahal izango zena oso-oso larria izango zen".

**EUSKARA** > AED ELKARTEAREN 25. URTEURRENA

# Euskararen egoera aztertuko dute maiatzean

## Bestalde, datozen jaiegun hauetan 'Hiru haundixak hiru egunetan' ibilaldia egingo dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

AEDren 25.urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan, maiatzerako gehiago iragarri ditu euskararen aldeko elkarteak. Hain zuzen, hiru mahai-inguru antolatu ditu, gaur egungo euskararen egoera aztertzeko. Aztertuko dute gure hizkuntzaren egoera gazteen artean, gizarte mugimenduetan eta lanean.

Aurreneko hitzaldia, euskara eta gazteen arteko harremana aztertzen duena, datorren astean egingo dute, maiatzaren 7an. Hitzordua 19:00etan da, gaztetxean. Honako hauek jardungo dute berbetan: Lander Juaristik, Txatxilupurdiko gazte txokoen arduraduna; Harkaitz Biainek, Udaleko Euskara eta Gazteria zinegotzia; eta Mikel Arregik, AGAKOko kidea. "Erabilera kontuak aztertuko dituzte, euskarak gazteen artean duen indarra eta euskarak gazteendako zein garrantzia duen; eta hori aztertuko duten errealitatea gertutik bizitzen duten hiru hizlarik. Gainera, hirurak dira gazteak", azaldu du Olaia Muruak, AEDko 25. urteurrena antolatzen dabilen teknikariak.

Gainerako bi hitzaldiak Kulturaten egingo dituzte: maiatzaren 14an, euskara gizarte mugimenduetan aztertuko dute; eta 21ean, euskara lanean.

**'HIRU HAUNDIXAK'**

Bestalde, AEDn jarraitzu, jakinarazi dute jendea kanpoan utzi behar izan dutela aurtengo *Hiru haundixak hiru egunetan* ekimenean: "50 lagun inguruk eman du izena, baina, kupoa 40 lagunera mugatuta zegoenez, batzuek kanpoan geratu behar izan dute", dio Muruak.

Kontuak kontu, bihar, eguena, irtengo da 40 laguneko taldea autobusean, 07:00etan, Garibaitik Zalduondora. Zalduondo-Aizkorri-Leixargarate eta Gatzaga da egingo duten lehenengo ibilbidea. Gatzagan afaldu eta lo egin eta, biharamunean, bigarren ibilbidea egingo dute: Gatzaga-Marin-Kurtzeta-Etxaguen-Zabalaundi-Anboto-Pol-Pol eta Otxandio. Eta azkeneko egunean, zapatuan, Otxandio-Urkiola-Barazar-Saldropo-Gorbea-Murua ibilaldia egingo dute. Guztira, beraz, 90-100 kilometro inguru egingo dituzte datozen egunotan.




**'HIRU HAUNDIXAK'** Iaz ere mendizale askok egin zuen bat irteeran. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Mondra eta Aretxabaleta epaile lanetan, domekan

## Mondrak eta Aretxabaletak Hirugarren Mailara igotzeko borrokan dabiltzan Real Union eta Ordizia izango dituzte aurrean



**OSPATZEN** Mondrako jokalariak Muruak egindako gola ospatzen. GOIENKARIA

**X.U.** > ARRASATE

Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, kategoriaz igotzeko lehian dabiltzan Ordizia (61) eta Real Union (60) ibarrean izango dira domekan. Mondrak (43) zapatuetan jokatzen badu ere, zubia delaeta oraingo asteburuko jardunaldia domekara atzeratu dute (17:30, Mojategi). Aretxabaletak (47), berriz, ez du aparteko aldaketari egingo; beti moduan, oraingoan ere domekan jokatuko dute, Ordiziaren kontra (16:30, Ibarra).

**EPAILE LANETAN**

Domekan, ibarreko bi talde horiek gauza bat izango dute komunean, epaile lanak egingo dituztela, alegia. Denboraldia hasi zutenetik Ordiziak eta Real Unionek sekulako lehia izan dute Hirugarren Mailara bidean, eta badirudi azken jardunaldira arte gauzak ez direla aldatuko. Ikusteko dagoena da Debagoienetik bietako zein irtengo den indartuta. Oraingoz, Ordizia da aurretik, puntu bat gehiagorekin. Baina, zenbakiek erakusten dute Ibarra futbol zelaian baino errazagoa dela Mojategin etekina ateratzea. Hain zuzen ere, talde bakarrak eskuratu ditu etxean Aretxabaletak baino puntu gehiago, Ordiziak berak. Mondrak, berriz, Mojategin ez du horrelako sendotasunik erakutsi.

Aloña Mendik (35), azkenik, Hernaniren (39) zelaian jokatuko du bihar, eguena, arratsaldean (16:30).

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



**POLITIKA** > OHIKO BILKURA BERGARAN

# Bozkatutako hiru mozioetako batek ere ez du aurrera egin Bergaran

Herritar eta hedabidez bete zen osoko bilkuren aretoa; herritarren artean batez ere EAEkoak

EAJren bost zinegotzietatik bi ez ziren agertu ohiko osoko bilkurara

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Ez zen adostasunik lortu atzoko osoko bilkuran. Batzarrera, hiru mozio aurkeztu ziren, eta bat bera ere ez zuten onartu, bakoitzak berea defendatu zuelako, eta horrela mozio batek ere ez zuen lortu aurrera egiteko beharrezkoak zituen zortzi botoak. Osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zela egin zen batzarra.

**HIRU MOZIO POLITIKO**

PSE-EEk eta EAJk batera aurkeztu zuten mozio "etikoa" deitu zaiona, udalez udal aurkezten dihardutena. Hari alternatiba moduan, Aralarrek eta EAEk aurkeztu zuten bakoitzak berea.

Sozialista eta jeltzaleena EAJren hiru botoak eta PSE-EEren bi botoak izan zituen alde. EAE (sei boto) eta Aralar (hiru boto) aurka agertu ziren eta EAko zinegotzia abstenitu egin zen. Lehen mozio honen helburua, EAJ eta PSE-EEren ustez "bakeari eta normalizazio politikoari modu eraginkorrean laguntzea" da, eta "herri honetako udal karguek zalantzarik gabeko konpromisoa hartzea, pertsona guztiek merezi duten eskubideen defentsan eta hauek urratzeko edonolako saiakerak arbuiatzeko". Konpromiso hau betetzen ez duten udal ordezkariei exijitzen die "bere gobernu karguak uzteko dimisioa aurkez dezatela".

Aralarren mozioa, bestalde, Aralarreko hiru zinegotzien eta EAren bakarraren babesa jaso zuen; EAEko sei zinegotziak kontra bozkatu zuten, eta EAJ (hiru boto) eta PSE-EE (bi) abstenitu egin ziren. Aralarrek aurkeztu zuen mozioaren lehen puntuan, EAJ eta PSE-EEk aurkeztutakoarekin bat egin du, hain justu ere, "gizakiaren duintasuna errespetatzea" eskatzean, baina ez besteetan.

Azkenik, EAEk bere mozio alternatiboa eskatu zuen. Horren alde, EAEko sei zinegotziek bozkatu zuten, eta kontra, beste guztiek: sozialisten bi zinegotziek, EAJko hirurek, Aralarreko hirurek eta EAko bakarrak.

Horrela, astelehenean aurkeztutako hiru mozioetako batek ere ez zuen egin aurrera. Boto esplikazioan Agurne Barrusok bakarrik hartu zuen hitza, beste inork ez. Haren ustez, "ezker abertzalearen aurkako zentsura mozioak ez dira berritasuna Euskal Herrian. Ezker abertzalea isolatzeko eta kriminalizatzeko joera eta errezeta horiek sarri erabili dira herri honetan".

**BESTE HIRU MOZIO**

Aipatutako mozio horiez gain, osoko bilkurako puntuen artean, beste hiru mozio bozkatu zituzten.

Lehena, AHTrik ez! taldeak aurkeztutakoa, onartuta gelditu zen EAE-ANV eta Aralarren botoekin. EAJ, PSE-EE eta EA aurka azaldu ziren. Mozio honek, besteak beste, azaltzen zuen "AHTren proiektua ez dagoela Euskal Herriari begira eginda, eta gainera sortuko dituen kalte ekologiko eta eraginak handiak izango liratekeela".

Bigarren mozioa EHNE sindikatuak aurkeztutakoa izan zen: *Genetikoki aldaturiko organismorik gabeko eremu librea* izenburukoa, eta aho batez onartu zuten alderdi guztiek. Mozio honetan, "herritar gehienek labore eta janari genetikoki aldatuen kontra daudela eta genetikoki aldatuen laborantzak ekiditeko borondatera adieraztearekin batera, labore horiek ekiditeko duten eskubide legala onartzea" eskatu zuten.

Azkenik, Chernobil elkarteak aurkeztutako mozioa ere alderdi guztiek onartu zuten. Mozio honen arabera, "oraindik badira ondorio ikaragarriak isilean sufritzen ari diren errugabeak".

**HERRITAR ETA HEDABIDE ASKO**

Joan zen astean Arrasaten bezala, ikusmin handia sortu zuen mozio "etikoaren" eztabaidak eta, hala, aretoa goraino bete zen herritarrez eta hedabidez; herritarren artean, batez ere, EAE-ANVko jarraitzaileak. Ekintzaileen aldeko oihu ugari entzun ziren, eta PSE-EE eta EAJren aurkakoak, batez ere, azken horren aurkako irainak. Hiru mozioen irakurketa egin ondoren, bertan bildutako zinegotziek ez zuten hitzik hartu, Agurne Barruso herriko alkateak izan ezik. EAE-ANVk aurkeztutako mozio alternatiboaren harira aipatu zuen: "Ezker abertzalea alde batera uztea ez da bidea gatazka politikoari heltzeko", eta gaineratu zuen EAEko zinegotziak "legeak hala dioelako" daudela udal karguetan, eta pasa den maiatzaren 27an herriak beraiengan jarri zutelako konfiantza, eta karguan daramatzaten hamar hilabeteetan, "orain arteko jardun demokratiko eta zabalena beraiena" izan dela. Barrusok hitz egin ondoren, osoko bilkurara joan ziren bi herritarrek ere hartu zuten hitza. Ezker abertzaleko zinegotzi izandako Jesus Mari Garitanok eta Mikel Egurenek. Biek ala biek kritika gogorrak egin zizkioten batez ere EAJri, baina baita PSE-EEri ere.

**HIRU MOZIOAK**

**> EAJ ETA PSE-EE-RENA:**
"Gobernu karguak uztea exijitu" zuten. Alde: EAJ (hiru boto) eta PSE-EE (bi). Aurka: Aralar (hiru boto) eta EAE-ANV (sei). EAko zinegotzia abstenitu egin zen.

**>EAE-RENA:**
"Esklusioak ez du gatazka politikoa konponduko", adierazi zuen. Partidu guztiek aurka bozkatu zuten, EAEk izan ezik.

**> ARALARREN MOZIOA:**
"Edozein motatako bortxakeria" gaitzetsi zuen. Alde: Aralar eta EA; lau boto. Kontra: EAE-ANV eta EAJ. PSE-EE abstenitu egin zen.

## San Pedro kalean ere galtzadarria jarriko dute

San Pedro kalea urbanizatzea onartu zuen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Lur azpian dagoen azpiegitura, akometida, berritu eta eguneratuko dute. Bestalde, lurzorua ere aldatu egingo dute: Artekalean egin duten moduan, galtzadarria jarriko dute San Pedro kalean ere, oinezoendako eta ibilgailuendako. Lanek 644.785,76 euroko aurrekontua dute. Enpresa adjudikatzaileak 120 egun naturaleko epea izango du lanak bukatzeko; bestela, 129 euro ordain dezake atzeratzen den egun bakoitzeko.



San Pedro kalea urbanizatzea onartu du osoko bilkurak oraingo astean. JASONE ZABALA




ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95




**TXOSNA BATZORDEA** Argazkian, txosna batzordekoak, astelehenean egin zuten aurkezpenean. MIRIAN BITERI

**JAIAK** > TXOSNA BATZORDEA

# Jaietan eguneko giroa indartzeko, hanbat ekitaldi antolatu dituzte

Berrikuntzen artean, beste urte batzuetan egin izan den bazkaria berreskuratuko dute aurten

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Berrikuntza asko prestatu ditu Txosnetako batzordeak aurtengo jaietarako. Eguneko giroa indartzeko asmoz, egitarau zabala prestatu du: "Parte-hartzean oinarritutako giro euskalduna eta abertzalea bilatzen duenak txosnetara joan behar du". Bideberriko txosnagunea egubakoitzean zabalduko dute, Bitorianatxoren jaitsieraren ondoren. Zapaturako, berriz, Amnistia Eguna prestatu dute, eta bazkaria errekuperatu dute.

Domekan, Independentzia Eguna izango da. Arratsaldean murala margotuko dute; antzerkia ikusteko aukera ere izango da. Astelehenean, bestalde, Euskararen Eguna izango da; eta martitzenean, azkenik, Hezkuntza Eskubideen Eguna ospatuko dute.

**EDALONTZI BIRZIKLATUAK**

Aurten, lehen aldiz, edalontzi birziklatuak erabiliko dituzte txosnetan. Euro bat kostatuko da bakoitza.

**JAIAK** > LABEGARAIETA

## San Joxepe abesbatza Labegaraietan izango da jaietan

Bihar, eguena, Labegaraieta auzoko jaiak hasten dira. Hainbat ekitaldi egongo dira; horien artean, 11:00etan meza, auzoko San Jose elizan. Meza amaieran, San Joxepe abesbatzak kontzertua eskainiko du Patxi Azkarateren gidaritzapean. Kantu herrikoiak abestuko dituzte. Ondoren, nahi duenarendako, salda eta txorizoa egongo da.

Arratsaldean, berriz, kadete mailako txirrindulari lasterketa egongo da, 16:30ean hasita. Lasterketa horretan Bergarako zortzi txirrindularik hartuko dute parte.

> HEZKUNTZA

## San Martingo hiru gela Martinez de Iralan daude

Joan den apirilaren 21a ezkero, San Martin Agirre ikastetxeko hiru gela Martinez de Irala eraikinean daude. Hain zuzen, seigarren mailako hiru gela daude Martinez de Iralako eraikin txikian. Giltzak martxoaren 31n eskuratu zituzten, eta egokitzapen lanak egin ostean zabaldu dituzte gelak. Une honetan, San Martingoak eta Aranzadikoak daude Martinez Iralan.

> ZERBITZUAK

## Kolunbarioen gaineko udal ordenantzak onartu ditu udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran

Asteleheneko osoko bilkurak onartu ditu kolunbarioak erabiltzeko udal ordenantzak. Ordenantza horien arabera, kolunbario unitatea erabiltzeko epea hamar urte izango da, eta ordaindu beharreko tasa, 125 euro. Kolunbariootan, udalerrian bizi zirenen errautsak dituzten kutxatilak bakarrik onartuko dira, salbuespenak salbuespen. Errauste kutxatilak ezkerretik eskumara eta behetik gora gordeko dira kolunbarioetan, eta errespetatu egingo da modu antolatu hori. Apiril hasieran jarri zituzten hilerrian errautsak gordetzeko kolunbarioak; guztira, 60. Kolunbario bakoitzak errauts kutxatila bakarra gorde dezake, eta kutxatila bakoitzak hilotz bakar baten edo horren gorpuzkinen errautsak bakarrik gorde ahal izango ditu.

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena 18** urte bete aurretik!
943 76 16 63 BERGARA
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

**AUZOAK** > INAUGURAZIO EKITALDIA

# Asentzioko auzo elkartea inauguratuko dute domekan

Auzoko jaien barruan bedeinkatuko dute elkarte berria, eta, besteak beste, bazkideak, auzotarrak, udal ordezkariak eta parrokoa egongo dira

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Martxoaren erdialdea ezkero zabalik dagoen arren, Asentzio auzoko elkartea domekan, maiatzaren 4an, inauguratuko dute. Hain zuzen, 12:00etan parrokiako abesbatzak abestuko duen mezaren ondoren bedeinkatuko du Murgia auzoko elkartea Sabino Zuazabeitia parrokoak. Ondoren, trikitilariek alaituta, luntxa egongo da ospakizunera hurbiltzen diren guztiendako. Gainera, egun horretan, auzoko ermita Murgialdaitik egun dagoen tokira ekarri zutela 100 urte beteko dira.

**LEHEN HARRIA, 2007AN**

2003ko irailean hasi ziren Murgia auzoko bizilagunak elkartea egiteko proiektuarekin: "Auzotarrak elizan biltzen ginen, eta lokal baten beharra zegoela ikusi genuen. Horregatik guztiagatik, elkarte bat eraikitzeko behar genuen informazioa eskatu genuen, eta lanean hasi ginen", azaldu digu Murgiako auzo alkate Estanis Usandizagak. Lehen harria 2007ko uztailean jarri zuten. Auzoko bizilagun gehienak hasi ziren buru-belarri lanak egiten: "Ahal izan dugun guztia auzo-lanean egin dugu; besteak beste, elkartearen aurrealdea txukundu, gutxituendako bidea egin, eraikina suteetarako prestatu, paretak berritu eta iturri ondoa txukundu", esan digu Murgia auzoko alkate Estanis Usandizagak.

Bestalde, martxoaren 16an jaso zuten 62 bazkideek elkarteko giltza. Bilera hartan, elkarteko estatutuak eta zuzendaritza batzordeko zortzi kide aukeratu zituzten.



**ELKARTEA** Elizaren atzean eraiki dute auzo elkartea eta domekan inauguratuko dute. MIREIA BIKUÑA

JAIETAKO EGITARAUA

## Auzoko jaiak ospatuko dituzte domekara arte

Domekan ospatuko duten Asentzio egunaren inguruan antolatu dituzte Murgia auzoko jaiak. Hain justu ere, bihartik domekara hainbat ekitaldi burutuko dituzte. Hasteko, bihar,, txokolate jana egingo dute elkartean, arratsaldeko bostetan. Gainera, egubakoitzean, auzo afaria egingo dute 21:00etan hasita, besteak beste, bertsolariak eta trikitilariak egongo dira afaria alaitzen. Karta jokoak ere tokia izango du Murgia auzoko jaietan, izan ere, zapatuan, 16:00etatik aurrera, mus txapelketa egingo da elkartean. Bestalde, Murgia auzoari buruz Jose Antonio Azpiazuk idatziko liburuaren ale bana baserri guztietara banatu dute.

**UDALA** > LANPOSTUA

# Arkitekto tekniko lanposturako izenematea, zabalik

Maiatzaren 14ra arte aurkez daiteke dokumentazioa Udalean hutsik dagoen lanpostua betetzeko

**M.B.** > OÑATI

Udalean hutsik dagoen administrazio bereziko erdi mailako arkitekto tekniko lanpostuko deialdia Estatuko Aldizkarian kaleratu zen apirilaren 23an. Horren harira, zabalik dago lanposturako izenemate epea. Dokumentazioa eta curriculumak udal bulegoetara eroan behar dira, maiatzaren 14a baino lehen.

Lanpostura aurkeztu ahal izateko hiru baldintza bete behar dituzte: 16 urte beteta izatea, arkitekto teknikoa edo aparejadore titulua izatea eta laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

**BALDINTZAK ETA PROBAK**

Oposizio-lehiaketa sistema erabiliko dute lanpostua betetzeko. Arkitekto tekniko lanpostua eskuratzen duenaren ardurak izango dira azpiegituren eta zerbitzu bulego teknikoa kudeatu, bide-azpiegiturekin zerikusia duten jardunak koordinatu eta zuzendu, ekimen-programak egin eta kontratatutako obra eta azpiegituren kalitatea zaindu, besteak beste.

Oposizio-lehiaketa bidez egingo den azterketaldiak bost ariketa izango ditu. Lehenengo hiru probak idatziz garatu beharreko ariketa teorikoak eta baztertzaileak izango dira. Laugarren proba praktikoa eta baztertzailea izango da. Hain zuzen, hainbat ariketa egin beharko dituzte lanpostuaren eskakizun teknikoetara nola egokitzen diren neurtzeko.

Azken ariketa euskarari dagokiona izango da. Laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen ez dutenek egin beharko dute.

> LIBURUA

### Azpiazuren liburu berria aurkeztuko dute maiatzaren 7an

Jose Antonio Azpiazuren azken liburua aurkeztuko dute maiatzaren 7an liburutegian, 19:00etan hasita; hain zuzen, *La empresa vasca en Terranova* izeneko lana. Oñatin bizi den idazle legazpiarrak Ternuaren historia kontatzen du, enpresa arloaren ikuspuntutik. Gainera, euskaldunak Ternuan XVI. mendean bizi izandako abenturak, istorioak eta mitoak kontatzen ditu. Anekdota mingarriak ere bildu ditu liburuan.

> GIZARTE ZERBITZUAK

### Emakumeendako autoestimu tailerra antolatu dute

Udaleko Gizarte Zerbitzuak emakumeendako autoestimu tailerra antolatu du. Hain zuzen, autoestimu altxatzeko aholkuak eta teknikak azalduko ditu Silvia Camino psikologoak. Tailerra 12 ordukoa izango da, maiatzaren 12an, 16an, 19an, 23an, 26an eta 29an, egunero bi orduz. Gehienez 15 emakume onartuko dira tailerrean, eta interesatuek izena, Gizarte Zerbitzuetan eman beharko dute.



MIREIA BIKUÑA

## Zañartuko bideko lanak, bukatzear

Aste Santuko egunetan egindako euri-jasen ondorioz Zañartura doan bidean sortutako zuloa konpontzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Foru Aldundiko langileek lehen zegoen hormaren neurri bereko beste bat egin dute; horretarako, hormigoitutako hiru metroko eustorma jarri dute oinarri modura, eta hormigoi masazko bost metroko horma egin dute. Foru Aldundiak 130.000 euro bideratuko ditu lanok ordaintzeko.

# SAN ANDRESEKO JAIAK 2008

## ARRASATE

**Maiatzak 1, eguena**
10:00 Diana (Arrasateko txistulariekin) eta etxafleroak.
Gure nagusien omenez meza.
11:30 / 14:30 Bedoñape patioan HAUR PARKEA.
12:30 Luntxa 80 urtetik aurrerakoentzat.
Corazon de encina elkartean.
13:00 / 15:00 Poteoa alaitzeko kalejira trikitixakin.
17:00 / 19:00 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
19:30 Etxafleroak eta buruhaundiak.
22:30 Gudarien plazan musika herrikoia Arantza eta Pantxorekin.

**Maiatzak 2, egubakoitza**
11:00 Gudarien plazan. Auto telegidatuen erakustaldia. Club Automodelismo Arrasate "2 pistones"-ek antolatua.
11:30/ 14:30 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
17:00/ 19:00 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
18:00 Kurtze txiki plazan haurrentzako txokolatada Kixka txotxongiloarekin.
19:30 Etxefleroak, buruhaundiak eta bonba japoniarrak.
22:30 Gudarien plazan Punk kontzertua:
- 23F
- DRAKES
- ULTIMA SACUDIDA

**Maiatzak 3, zapatua**
10:00 Diana (Arrasateko txistulariekin) eta etxafleroak.
11:30 / 14:30 Bedoñape patioan HAUR PARKEA.
12:30 / 14:30 Poteoa alaitzeko, kalejira Akelarre txarangarekin.
14:30 Bazkari popularra.
17:00 / 19:00 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
17:30 Gudarien plazan TXIKITXU/ARROSTAITZ emanaldia.
19:30 Etxafleroak eta buruhaundiak. Poteoa alaitzeko, kalejira Akelarre txarangarekin.
22:30 Gudarien plazan dantzaldia GAUBELA taldearekin

**Maiatzak 4, domeka**
10:00 Diana (Arrasateko txistulariekin) eta etxafleroak.
11:30 Buruhaundiak.
12:00 Cordoba y Oro enparantzan:
- Gorriti eta bere animaliak.

Gudarien enparantzan:
- Herri kirolak.

19:00 JAIEI BUKAERA EMATEKO AZKEN TRAKA.



**Kapikua** opariak eta osagarriak • **Jabier** gozoki-denda
**Meher** jantzi-denda • **Kurruxko** okindegia • **Azpilikueta** harategia
**Raos** sarraila-denda 24 ordu • **Teknoberri** informatika
**Toki-eder** taberna • **Equs** taberna • **Rita** frutategia
**Oihal** etxerako ehungintza • **Avenida** kafetegia • **Urmai** kafetegia
**Arte Leniz** kuadroak eta markogintza • **Nuevo** taberna
**Urretxu** taberna • **Iriztu** taberna • **Ibarra** okindegia • **Perez** frutategia
**Ainur** besaulkien tapizaketa • **Ritelu** jantzi-denda
**Bedoñabe** haur eskola • **Bittori** erretegia • **Itxaso** kafetegia

**ONDO PASAU JAIETAN!**

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Amnistiaren aldeko mozioa, onartuta Aralarren botoekin

PSE-EE aurka agertu zen, eta EA, abstenitu; EAJ eta Ezker Batua-Berdeak ez ziren egon

Haur eskolaren araudiari jarritako helegitea atzera bota zuten aho batez

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehenean. Udalbatza osatzen duten hamar zinegotzitik zazpi egon ziren, EAJko biek eta Ezker Batua-Berdeetakoak ez zutelako agertzerik izan. Zortzi puntu zituen gai zerrendak, baina horietatik hiru bakarrik eztabaidatu zituzten. Alkateak aipatu zuen gainerakoak batzordeetan aztertu behar dituztela lehenengo, tartean, kultura etxearen kudeaketaren esleipena eta babes ofizialeko etxebizitzak egiteko hitzarmena sinatzea.



**UDALBATZA** Astelehenean egindako osoko bilkuran, udalbatzako kideak. MIRARI ALTUBE

#### AMNISTIAREN ALDEKO MOZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako auziaren gaineko mozioa aurkeztu zuen Eusko Abertzale Ekintzak. Esan zuten ez direla delituak dispertsioa, tortura eta errepresioa salatzea, pertsonen eskubideak babestea eta preso, iheslari eta euren senideak laguntzea. Hala, Udalari hiru eskaera egin zizkioten: elkartasuna eta babesa eskaintzea Amnistiaren Aldeko Mugimenduko 27 auzipetuei eta militanteei; mugimenduak lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzea, eta auziarekin batera bukatzea debeku eta kriminalizazioak; eta eskubideen urraketa, tortura eta errepresioa ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagerpena aldarrikatzea.

Alderdi Sozialistak adierazi zien gatazka beti ETAren eskutik datorrela, eta oraindik Isaias Carrascoren erailketaren gaitzespenaren zain daudela. EAE-ANVko kideek hau erantzun zioten: "Zinikoa da gero, gu isilarazi ostean, zuek entzun gura duzuena guri esateko exijitzea". Eztabaida sortu zen orduan. Inaxio Garro alkateak Aralarren izenean egin zuen berba, eta esan zuen, ETAren aurka era argian agertu diren moduan, giza eskubide guztiak aldarrikatzen dituztela, eta mozioaren alde agertuko zirela. EAk, ostera, esan zuen, presoen eta beste talde batzuen kontrako ekintzen aurka azaldu arren, oraingoan abstenitu egingo zirela, esandako moduarekin ez zetozelako bat. Mozioa onartuta geratu zen Aralarren aldeko botoekin.

#### HAUR ESKOLAREN ARAUDIA

Pausoka haur eskolaren araudia berraztertzeko helegitea, ostera, atzera bota zuen udalbatzak. Bi herritarrek aurkeztu zuten, eta haur eskolaren araudiaren 5. artikulua berraztertzea eskatzen zuten; hau da, umearen gurasoek Aretxabaletan erroldatuta egon behar izatea izenematea baino sei hilabete lehenago. Hezkuntza batzordean gaia aztertu ostean, udal idazkariak txosten juridikoa gertatu du herritar horiek aurkeztutako helegiteari ezetza emateko.

**ZERBITZUAK**

## Maiatzaren 16tik, itxita egongo da liburutegia

Liburuak eta gainerako materiala kultura etxe berrira eroango dituzte

**M.A.** > ARETXABALETA

Kulturarako eraikineko lanak bukatuta daude, eta altzariz hornitzen dabiltza orain. Poliki-poliki, lekualdatzeak egiten hasiko dira, eta Udal Liburutegiak egingo du lehenengo. Lana hobeto egin eta traba eta eragozpenik ez sortzeko, maiatzaren 16an, itxi egingo dute, eta berria zabaldu arte ezingo da liburutegia erabili. Hala, erabiltzaileek ezingo dute ez liburu, ez CD eta DVDrik maileguan hartu, eta maileguan hartutakoak udaletxeko harreran utzi beharko dituzte maiatzaren 16tik aurrera. Dena dela, Udal Liburutegiko txartelarekin beste herri batzuetako liburutegietan egin daitezke kontsultak eta maileguak.

#### UMEENDAKO TXIKI-TXOKOA

Kulturako ordezkariek uste dute ekaineko lehen hamabostaldian zabalik egongo dela liburutegi berria. Erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaini gura diete, eta, horregatik, umeen liburutegia eta helduena bananduta egongo dira. Txiki-txoko izena izango du umeen txokoak, eta 5 urtetik beherakoendako izango da. Helduen guneak, bestalde, wi-fi zerbitzua izango du, eta hemerotekako ikusentzunezko material eskaintza handiagoa egongo da.

ZAHARRAK BERRI SAIOA

zaharrak BERRI

Zure intereseko **elkarrizketak**, **erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu GOITBn

Goitb Goiena Telebista

Ikustekoa!

Aste honetan:

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean



**NOIZ:** Maiatzak 7 eta 8

**NOR:** Amaia Diaz de Monasterioguren Dietista.

**GAIA:** azala zaintzeko aholkuak

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Babeslea:

kutxa URREZKO ZERBITZUA

**LANDA EREMUA** > LEHIAKETA

# Nati Abasolok saria jaso du, ohitura onak bultzatzeko ekarpenak egiteagatik

Umeekin pentsatuta egin zituen ekarpenak, eta iritzi kritikoa bultzatu behar dela dio

Jaso duen saria da Itziarko Txerturi Goikoa landetxean aste bukaera bat pasatzea



**SARIA** Nati Abasolo (erdian), Deba Garaia eta Debemen Landa Garapenerako elkarteek emandako saria jasotzen. DEBARROA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Nati Abasolo aretxabaletarrak irabazi du landa eremuaren mantenua bultzatzeko ohitura onen lehiaketa. Deba Garaia eta Debemen Landa Garapenerako elkarteek kaleratu zuten *Landa eremuarekiko ohitura onen gidaliburua,* iaz, udazkenean. Landa eremuarekin eta baserrian bizi eta lan egiten dutenekin errespetuzko jokaera bultzatzea zen asmoa, eta bertan ekarpenak eskatu zizkieten herritarrei ohitura on horiek bultzatzen laguntzeko. Lehiaketan, Debagoieneko eta Debabarreneko bizilagunek hartu dute parte.

**GERTATUTAKO HEZITZAILEAK**

"Gidaliburua aztertu nuen lehenengo, eta ekintza asko egiten dituztela konturatu nintzen. Horregatik, umeei zuzendutako ekarpenak egitea erabaki nuen", azaldu digu Abasolok. "Baserria zer den erakutsi behar diegu, bakarrik etxe bat eta behi batzuk ez dela jakin dezaten. Hor daude aisialdia, ohiturak, jaiak, baserritarren ulertzeko era… eta beste kontu asko". Baina umeei erakusteko, lehenengo, irakasle eta hezitzaileak gertatu egin behar direla dio: "Zelan erakutsiko diete umeei, horren gaineko ezer ez badakite?" Areantza auzoko Etxebarri baserrian jaiotako Abasolok uste du prozesu osoa erakutsi behar zaiela umeei: "Esnea, esaterako, zelan iristen den gure etxeetara. Baserrira joanda, ikus ditzakete prozesu batzuk, eta beste batzuk, ikus-entzunezko eta antzeko muntaien bidez". Gainera, iritzi kritikoa izatea oso garrantzitsua dela dio: "Zergatik garbitzen dira zelaiak? Zergatik moztu sasiak? Eta zergatik garbitu arekak? Zainketa lanek daukaten garrantzia erakutsi behar diegu". Baina hori guztia ondo egiteko, gertatutako jendea behar dela errepikatu digu: "Eta lana egindakoan ebaluatzea ere oso garrantzitsua da: umeek ulertu duten edo ez, non egon diren zailtasunak…".

Ekarpen horiek egiteagatik, saria jaso berri du Deba Garaia eta Debemen elkarteen eskutik: Itziarko Txerturi Goikoa landetxean aste bukaera pasatzea.



53KO KINTOAK

## 75. urteurrena ospatu dute 1953ko kintoek

75. urteurrena ospatzeko elkartu ziren 1953ko kintoak apirilaren 19an; 37 lagun, guztira. Meza entzun zuten lehenengo, eta, ondoren, Eskoriatzako Mendigoia hoteleko jatetxera joan ziren bazkaltzera. Dagoeneko 25 urte pasatu dira azken aldiz elkartu zirenetik, 50. urteurrena ospatu zutenean, hain zuzen, eta gustura baino gusturago jardun zuten kontu kontari. Hemendik aurrera, urtero elkartu behar dutela aipatu zuen batek baino gehiagok.

**GIZARTE ZERBITZUAK**

## Familia ugariek, tasa murrizketa kirol etxean

**M.A.** > ARETXABALETA

Aretxabaletako familia ugariei erdira murriztuko diete kirol etxeko tasa. Hala erabaki zuen Udal Gobernuak apirilaren 21ean egindako gobernu batzordean. Ez dute irizpiderik ezarri; hau da, familia ugaria izateagatik egingo dute murrizketa.

Orain dela bi urte eskaera egindakoei zuzenean itzuliko diete kontuan ordaindutako erdia, eta gainerako familiek –ordutik hona ugari izendapena jaso dutenak– eskaera egin beharko dute Udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Eskaera egiteko aurkeztu beharrekoa da kirol etxeko kuotaren ziurtagiria eta familia ugari izendapena.

**AISIALDIA**

## Udalekuetan izena emateko epea zabalik

**M.A.** > ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 28, zabaldu zuen Kultura Sailak udaleku irekietan izena emateko epea. Maiatzaren 13a bitartean jasoko dituzte umeen eskaerak (11:00-13:00), Iralabarri plazako kultura etxean. Eskaera orria beteta eroan behar dute, eta, horrekin batera, Euskadiko Kutxan ume bakoitzeko 41,35 euro ordaindu den ziurtagiria –kontu zenbakia: 3035.0002.190020030706– eta, lehen aldiz izena ematen dutenek, familia liburuaren fotokopia. Hiru anai-arrebak emanez gero izena, hirugarrenak ez du ordaindu beharrik izango. Udaleku irekiak uztailaren 2tik 23ra egingo dituzte.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Luis Ezeiza herri eskolan igogailua jarri, aterpea ipini, sukaldea handitu eta beste hainbat lan egin gura dituzte. IKER BARANDIARAN

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# PSE-EEren eta EAJren mozio 'etiko'-ari EA batu zaio

Lehenengo aldia da EAk EAJren eta PSE-EEren mozio 'etikoa' aurkezteko eskaera egiten duena

Ibarraundi ingurua urbanizatzeko proiektua onartu edo ez erabaki beharko dute bilkuran

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Gaur, eguaztena, osoko bilkura egingo dute Eskoriatzan, 18:45ean. Azken egunotan EAJk eta PSE-EEk hainbat udaletan aurkeztu duten mozio *etikoa*-ri EA batu zaio Eskoriatzan. Hain zuzen ere, hiru alderdiek sinatu dute mozio hori osoko bilkuran sartzearen aldeko idatzia.

Baina, horrez gain, bestelako gai ugari landuko dituzte gaurko ohiko osoko bilkuran. Hala, besteak beste, eztabaidatuko dute Luis Ezeiza herri eskolari hainbat lan egiteko baimena ematea, eta lan horiek interes publikotzat izendatzea. Asmoa da eskolan igogailua jartzea, aterpea egitea, sukaldea handitzea eta beste.

Ibarraundi ingurua urbanizatzeko lanen gainean ere arituko dira. Hain zuzen ere, aurreko agintaldiko asmoa da museoaren atzean dagoen San Pedro auzoari irtenbidea ematea, eta museoaren inguruan parke bat egitea.

Egitasmo hori atzeratu egin behar izan dute, San Pedroko etxeetan igogailuak jarri gura dituztelako. Azkenean, igogailuak atzealdean egingo dituzte, eta Ibarraundi gaineko errepidea aske utziko dute autoak pasa daitezen.

Udal agintarien asmoa da osoko bilkuran lan horren proiektua onartzea. Hala balitz, proiektua lehiaketa publikora aterako lukete eta prozedimendua abian jarri. Ingurune hori guztia Intxaurtxuetako etxeak egin zituen enpresak urbanizatu behar zuen, baina aurreko agintaldian erabaki zuten Udalari dirua ematea, hark urbanizazioa egin zezan.

**HAINBAT FAKTURA ORDAINTZEA**

Bestalde, osoko bilkuran eztabaidatuko dute heldu barik dituzten lan batzuen fakturak egin eta ahalik eta lasterren ordaintzea: batetik, Udaleko Ikerketa batzordeak ondorioztatu zuen Frixi enpresari San Juan kalean lur azpiko edukiontziak eta urbanizazio lanak egiteagatik eskatutako kopurua, 180.000 euro inguru, ordaintzea; eta bestetik, Sormen enpresak Ibarraundi museorako egindako ikus-entzunezkoa ordaintzeko gaia ere mahai gainean jarriko dute.

**JOSE ARANAREN ETXEA**

Herriko elkarteen eskaerei dagokienez, Udalak aztertu behar du Jose Aranaren etxea zena, Mesedeetako Amaren egoitzak erabiltzeko aukera daukana, bi elkarteri uztea.

Hain zuzen ere, Mundukide eta Garabide elkarteek Udalera jo zuten lokal baten eske, eta Udalaren ustetan aukera onena Jose Aranaren etxea da. Garabide elkarteak euskalgintzaren esperientziak hirugarren mundura eramaten ditu, hango hizkuntza gutxituei laguntzeko.

**BESTELAKO GAIAK**

Osoko bilkuran, guztira, 18 puntu izango dituzte eztabaidagai. Hala, azaldutakoez gain, beste batzuk egongo dira.

Esaterako, Udalak eta Eskoriatza Kirol Elkarteak hitzarmena sinatzeko asmoa daukate, elkartearen ekimenak finantzatu eta egonkortuko dituenak. Horren gaineko erabakia hartu beharko dute.

Bestalde, Ezker Batua-Berdeak taldeak Lan Osasunaren Egunaren gaineko mozio bat aurkeztuko du; eta Pedro Lasagabaster alkateak, berriz, Amnistiaren Aldeko Batzordeen kontrako epaiketaren gaineko beste bat jarriko du mahai gainean.

## Eskoriatzatik Marokora, motor gainean



GOIENKARIA

Eskoriatza inguruko 12 lagun Marokoko errepideetan barrena dabiltza egunotan. Horietako gehienak Ederlaneko langileak dira. Egubakoitzean, apirilaren 25ean, irten ziren Eskoriatzatik eta domekan Marokora sartu ziren. Motorrak lagun dituztela Eskoriatzatik Marokora joan-etorria bederatzi etapatan egingo dute, eta maiatzaren 3an helduko dira Eskoriatzara.

> IKASTAROA

## Defentsa pertsonal ikastaroa emakumeendako

Kempo taldeak defentsa pertsonala lantzeko ikastaroa antolatu du emakumeendako. Hitzordua maiatzaren 10 eta 11rako egin dute. Bi egunean 10:00etatik 13:00etara bitartean egingo dute, Eskoriatzako pilotalekuan; eta interesatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko telefono zenbakia honako hau da: 627 44 21 42.

Bestalde, Kempo taldekoek maiatzaren 24an Madrilera joko dutela, han egingo duten txapelketara esku hartzera.

**GIZARTEA** > BIZTANLERIA

# Biztanle kopurua 2.133ra igo zen, iazko datuen arabera

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, iaz 127 alta eta 106 baja izan ziren herrian; Udaleko datuek diote biztanle kopurua 2.146 lagunekoa dela



**DATU ZEHATZIK EZ** Estatistika Erakundearen eta Udalaren datuen artean 13 bizilaguneko aldea dago. GOIENKARIA

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Espainiako Estatistika Erakundeak jakitera eman du Antzuolako bizilagunen kopurua. Iazko datuei erreparatuta, 2.133 bizilagun zeuden Antzuolan 2008ko urtarrilaren 1ean.

Altei dagokienez, 127 bizilagun gehiago daude herrian: 34 jaioberriak, 75 beste herri batzuetatik etorriak, bi atzerritar eta 16 lagun aurrez beste toki batean inskribatu gabeak, gehienak atzerritarrak hauek ere.

Bajak, berriz, 106 izan dira: 25 hildakoak,76 kanpora joandakoak eta beste baten inskripzioa galdu egin da. Hortaz, 21 laguneko aldea dago.

**UDALEAN, GEHIAGO**

Udaleko datuek, ordea, besterik diote. Data berean 2.146 bizilagun zeuden Antzuolan, Udalaren arabera. Jaiotakoen eta hildakoen kopuruan bat datozen arren –34 jaiotakoak eta 25 hildakoak–, kanpora joandako bizilagunen eta kanpotik etorritakoen kopuruak dira ezberdinak. Joandakoak 81 dira, Udalaren ustez, eta etorritakoak, 93. Hortaz, 13 biztanle gehiago lirateke, Espainiako Estatistika Erakundearen datuekin alderatuta.

Espainiako Estatistika Erakundearen eta Udalaren datuak konparatu ostean, emaitza ofiziala zein den jakinaraziko dute.

Hala ere, argi dago biztanleriaren gorako joera nabarmena dela, eta arrazoia etorkinen eta jaioberrien igoera da, batik bat.

> KIROLA

### Maiatzaren 10ean hasiko da herriko pilota txapelketa

Olalde elkarteko pilota sailak antolatutako eskuz binakako herriko pilota txapelketan hamar bikotek eman dute izena. Partiduak zapatu goizetan jokatuko dituzte eta saio bakoitzean lau partidu izango dira. Egutegi guztia zehazteke badago ere, maiatzaren 10ean jokatuko dituzte lehenengo jardunaldiko partiduak eta aurreikuspenen arabera ekainaren amaierara bitartean luzatuko da txapelketa.

> UDALA

### Bi udalbatzar izango dira datozen asteetan udaletxean

Maiatzaren 7an ohiko udalbatzarra egingo dute udaletxean 18:00etan. Eguzki auzo lur zatiaren besterentzea; terrazen ordenantza; Ibaiak eta errekak antolatzeko Lurralde Arloko Planaren alegazioa; eta Torresoroa izango dira besteak beste gaiak. Bestalde, maiatzaren 12an, ezohiko batzarra egongo da 18:00etan. PSE-EE eta EAJren mozioa eta EAE-ANVrena izango dira eztabaidagai.

**AISIALDIA** > LANTALDE BERRIA

## Taldea sortu nahi dute herritarrekin, gazteen eta umeen aisialdi ekintzak koordinatzeko

Orain arte begirale lanetan jardun dutenekin jarri da harremanetan Udala

**I.A.** > ANTZUOLA

Gaztetxokoko denboraldia amaitu berri da eta aurki hasiko dira udaleku irekietarako ekintzak gertatzen. Bien bitartean, Udala ekimen berezi bat bultzatzeko lanean hasi da: lantaldea sortu nahi du, umeen eta gazteen aisialdi ekintzak koordinatzeko.

**GAZTETXOKOA ETA UDALEKUAK**

Horretarako, orain artean, udaleku irekietan, lanean jardun duten herriko begiraleekin harremanetan jarri dira Udalekoak. Bakoitzaren datuak jasotzeaz gain, lantaldea sortzeko ideiaren gainean duten iritzia eskatu diete eta baita ume eta gazteen aisialdirako dituzten proposamenak emateko ere. Asmoa da datorren asterako erantzunak jasotzea eta taldea osatzea.

Guztira, zortzi edo hamar lagunek osatuko lukete lantaldea eta arduratuko lirateke gaztetxokoaz, umeen eta gaztetxoen kirol, kultura zein bestelako ekimenak kudeatzeaz... Horretaz gain, herrian beste ekintza zehatz batzuetan jendea behar denean, esaterako, erakusketak zaintzeko edo zinema emanaldietarako, lantaldeko kideek jardutea da asmoa.

Lehen pausua da lantalde horren bitartez udalekuak kudeatzea eta uda ostean landuko dituzte gainontzeko ekimenak.

Gainera, gaztetxokoak aurki izango da lokal berrian. Eguzki auzoan eraikitzen diharduten etxeen azpian egongo da eta nahia da aurten abian ipintzea.



ARROLA

## Arrolako mendizaleak Aitzulon

Arrolako mendizaleek irteera egin zuten domekan. Jende gutxi joan arren, egun polita pasa zuten, eguraldi onari esker. Araoztik Orkatzategira igo eta, gorakoan, Aitzulo ikusi zuten; gero, uraren kanalaren hormatik jaitsi ziren. Maiatzeko irteera Lizarrustitik Larraitzera bitartekoa izango da eta mendizaleei joateko gonbitea egin nahi diete.



**OSPAKIZUNA** > ASENTZIO EGUNA

# Biharko, eguena, Intxortara mendi irteera eta bazkaria antolatu dituzte gaztetxekoek

Asentzio Eguna dela-eta, ermitan urtero esaten den meza domekan, maiatzak 4, esango du Angiozarko parroko Leonardo Esnaolak, 12:30ean



BAZKARIA Urteroko bazkaria egingo dute bihar, 14:30ean. GOIENKARIA

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Bihar, maiatzak 1, egingo ditu Elgetako gaztetxeak Asentzio Eguneko ospakizunak. Lehenengo, mendi txangoa egingo dute Intxortara. 10:00etan abiatuko dira Herriko plazatik.

Mendi buelta egin ostean, 11:30ean salda eta txorizoa banatuko dituzte Asentzion. Bazkaria ere antolatu dute. Pasta-entsalada, oilaskoa, postrea eta kafea dituzte menuan. Bertsolariek eta herriko trikitilariek girotuko dute mahai-ingurua.

Aurten, eskolako umeek ez dute Asentzio Egunean dantzarik egingo. Zubia da, eta Maala guraso elkarteak ez du behar beste ume batu urteroko dantza saioa egiteko.

**MEZA, DOMEKAN, 12:30EAN**

Leonardo Esnaolak esango du meza. Olatza baserrikoek izan dute ermitako giltzen ardura aurten. Zabale baserriko Patxi Basaurik hartuko ditu jarraian.

**HISTORIA** > ESPAINIAKO GERRA

# Urtean bi ekitaldi egin nahi dituzte gerraren inguruan

Domekan egindako omenaldiaren gainean balorazio positiboa egin dute antolatzaileek

L.Z. > ELGETA

Domekan 100 bat lagunek hartu zuten parte Espainiako gerran hildakoen omenez egindako ekitaldian. Bai Elgetako Udalak, bai 1937 Intxorta kultura elkarteko kideek ekintzaren gaineko balorazio positiboa egin dute: "Ekintzak harrera oso ona izan du herritarren artean", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Elgeta leku garrantzitsua izan zen gerran, eta domekako ekintzari jarraipena eman nahi diogu Udalekook".

1937 Intxorta kultura elkarteko Jesus Gutierrezen hitzetan, ekitaldi polita izan zen domekakoa: "Jendearen interesa zenbaterainokoa zen ikusi nahi genuen, eta gustura gaude alde horretatik", adierazi du. "Parte hartzaile gehienak ingurukoak ziren, ingurua ondo ezagutzen dutenak; iruditzen zait, baina, aurrerantzean beste begi batzuekin ikusiko dutela".

**ETORKIZUNEAN, GEHIAGO**

Domekako irteeran parte hartzeko aukerarik izan ez zutenek jakin behar dute ekaineko lehenengo asteburuan egingo den Mundumira jaialdirako txango bera antolatu dutela. Gainera, UNEDek Espainiako Gerraren inguruko seminarioa egingo du Udako Ikastaroetan, eta, ekainaren 27an, Elgetako fronteko posizio garrantzitsuenak ezagutzeko beste irteera bat egingo dute. Aurrerantzean, urrian ere ekintzak antolatzeko asmoa dute udaletxean; izan ere, 1936ko urrian borroka latza izan zen Elgetako frontean.

**UDALA** > AUDITORIA

# Udalak aholkularitza enpresa baten gomendioak jasoko ditu jarduera batzuk hobetzeko

ZB enpresak berriki egindako auditoriak dio hobetu beharreko gauzak daudela, gehienbat, prozedura administratiboetan eta espedienteetan

L.Z. > ELGETA

Egungo Udal Gobernuaren enkarguz, ZB enpresak Elgetako Udalaren jarduna aztertu du. Auditoria 2005. eta 2006. urteetara mugatzen da, eta ateratako ondorioa da badagoela zer hobetu, bai prozedura administratiboetan zein espedienteen jarraipenean. "Maiatzean batzarra egingo dugu ZB Consultores enpresako ordezkariekin", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Gauzak zuzentzen hasi nahi dugu lehenbailehen, eta lehentasunezko neurrien zerrenda bat aurkezteko eskatuko diegu". Dirulaguntzak ematеko sisteman ere zenbait akats antzeman dituzte: "Auditoriak dio Udalak arautu egin behar duela laguntzak emateko prozedura", azaldu du Erostarbek. "Bilera egingo dugu herriko elkarteei gauzak behar den moduan azaltzeko, baina berrikuntza honek plangintza bat egitera behartuko ditu bai Udala, bai herriko elkarteak".

**IRREGULARTASUNAK**

Auditoriak, bestalde, zenbait irregulartasun antzeman ditu ikertutako bi urteetako udal jardueran: "Zenbait lan esleitzerakoan ez zela prozedura egokia jarraitu agertzen du txostenak", esan du Erostarbek. "Esaterako, lehenengo Errekako obra zuzendaritzan, Uriarteko ur hornidura lanetan, Beizu-Azurtza-Arraoz bideko lanetan eta Torrealdeko urbanizazio lanetan".

**LUDOTEKA** > OSPAKIZUNA

# Merienda egingo dute haurrek ludoteka agurtzeko

Sei hilabetez egon da zabalik 2-12 urte bitarteko umeendako ludoteka zerbitzua

L.Z. > ELGETA

Gaur, eguaztena, emango dio Udalak amaiera ludoteka zerbitzuari. Enara Merinok egin ditu bigarren urtez begirale lanak ludotekan. "Denetarik egin dugu; antzerkia, eskulanak, marrazkiak, jolas librea... Gustura ibili gara eta, horregatik, merienda egingo dugu gaur, agur moduan", adierazi digu.

**20 UME**

Herriko 20 umek erabili dute ludoteka ikasturte honetan. Azaroan zabaldu zuen zerbitzua Elgetako Udalak eta, sei hilabetez, astelehenetik barikura bitartean, egunero izan da Merino umeekin, 16:00etatik 19:00etara.

Kultura etxean egon da kokatuta aurten ludoteka zerbitzua. Haur eskolarako egokitzen ari diren lokalean, baina, tokia izan dezake etorkizunean ludotekak. Erabilera askotariko lokala egin nahi du Udalak bertan, eta gaztelekua zein ludoteka egon daitezke hantxe hurrengo urteetan.

Obrak egiteko daude oraindik. Udalak aurreikusita dauka lan horiek maiatzean hastea, eta abenduko oporrak aprobetxatzea haur eskola Torrealdeko lokalera eramateko.

Argi dagoena da ludoteka herritarrek erabiltzen duten zerbitzua dela.



TALDEA Enara Merino begiralea ludotekako ume batzuekin. GOIENKARIA

> ERRETIRATUAK

### Martitzenean, hilak 6, aukeratuko du presidentea batzordeak

Barikuan, hilaren 25ean, egin zuten urteko batzar orokorra Elgetako erretiratuek. Ez da zuzendaritza batzorderako kide berririk aurkeztu; beraz, orain arteko zazpi lagunek jarraituko dute. Batzorde horrek maiatzaren 6an aukeratuko du presidentea. Ezusterik ezean, Zezilio Totorikaguenak jarraituko du karguan.

> ODOL EMAILEAK

### Odol emaileen elkarteak saria eman dio Elgetako Udalari

Euskadiko odol emaileen elkarteak sari banaketa ekitaldia egin zuen astelehenean, hilak 28, Donostian. Mila biztanleko 50 odol emailetik gora dituzten herriak saritu zituzten. Oxel Erostarbe alkateak *Zilarrezko tanta* izeneko oroigarria jaso zuen. Elgetako odol emaileen elkartearen lanari emandako saria dela esan zuen.

> FUTBOLA

### Elgetako taldeak bere multzoko lider jarraitzen du

Josu de Vegak gidatzen duen taldea emaitza onak lortzen ari da azkenaldian. Aurreko asteburuan ere lidergoa mantentzea lortu zuen Ikasberri 3-0 mendean hartu ostean.

Aste bukaera honetan Eibartarrak taldearen aurka jokatuko dute Kopako azken partidua, Unben, zapatuan 15:30ean.



SANTIKRUTZ Auzolanean ermita konpontzeko dei egin dute maiatzeko hiru aste bukaeratan. GOIENKARIA

**ONDAREA** > LANAK

# Santikurtz ermita auzolanean konpondu nahi dute maiatzean

Ermitan konponketak egiteko, jendea eta traktoreak behar dira

Maiatzaren 10-11n, 17-18an eta 24-25ean egingo dituzte ermita konpontzeko lanak

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Etxaguengo Santikurtz ermita XVII. mende amaieran eraiki zutela uste da. Etxaguen mendiko haitzetan, mila metrora dagoen ermita txikia da Santikurtz, 20 metro koadro eskas hartzen dituena. Zenbait historia liburuk diote Aramaioko Udalak eta Etxaguengo auzo lagunek eraiki zutela. Zenbait kondairak diote Santikurtz ermita Aramaioko nekazaritza eta soroak ekaitzetatik babesteko eraiki zutela. Izan ere, garai hartan, honela esaten zuten Aramaioko nekazariek ekaitz arriskua ikusten zutenean: *Santa Barbara, Santikurtz: Jauna erruki zakiguz... Iñuzentien ogixe, Jauna, miserikordixie...*

Ermita eraiki zutenetik zenbait konponketa lan egin dira. Azkena 1985. urtean izan zen. Orduan, teilatua, hormetako pintura eta hormak konpondu ziren. Arabako Foru Aldundiak 1.500 euro inguruko dirulaguntza eman zuen. Dena dela, konpontze lanak aramaioarrek eta Etxaguen auzoko biztanleek egin zituzten. Kontu liburuek diote herritarrek boluntarioki egin zutela lan zapatuetan, Jesus Maria Elejalde eta Ambrosio Bergaretxe apaizek zuzenduta.

**MAIATZEAN KONPONDUKO DUTE**

23 urte pasa dira, beraz, Santikurtz ermita azkenekoz konpondu zenetik. Azken urte hauetan, baina, ermitaren egoerak okerrera egin du eta konpondu beharrean dago berriz. Horregatik, eta orain dela 23 urte egin zuten moduan, orain ere auzolanean konpondu nahi dute Santikurtz ermita.

Maiatzeko hiru aste bukaeratan egin nahi dituzte lanok: maiatzaren 10ean eta 11n; 17an eta 18an; eta 24an eta 25ean. Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, hiru aste bukaera nahiko izango direla uste dute ermitak behar dituen konponketa guztiak egiteko.

Teilatua osorik konpondu nahi dute, eta barruko eta kanpoko hormak ere bai; margotu ere egin nahi dituzte ermitako hormak. Hortaz, lan ugari dago egiteko. Hori horrela, herritar talde batek eta Aramaioko Udalak deialdia egin diete aramaioarrei ermitaren konpontze lanetan laguntzeko.

**TRAKTORE BEHARRA**

Lanak egiteko, jendea eta traktoreak beharko dituztela azaldu du auzolan hori antolatzen diharduen herritar taldeak. Izan ere, materiala eta tresneria pagadiraino eraman beharko dituzte traktoreetan. Handik, gero, ermitara eskuz eramango dituzte materialok.

Hori horrela, garrantzitsua da aurrez jakitea zenbat pertsonak jardungo duten auzolanean. Horrela, zenbat traktore izango dituzten jakiteko, eta lanak eta materialak hobeto antolatzeko. Konpontze lanak egiten laguntzeko gertu dauden aramaioarrek izena eman beharko dute maiatzaren 4a baino lehen; euren auzoko alkateari esanez edo udaletxera joanda.

Antolatzaileek azpimarratu dute, izena ematean, garrantzitsua dela traktorerik daukaten argitzea. Aste bukaera guztietan parte hartzerik ez dutenek, bestetik, zehaztu egin beharko dute zein egunetan lagunduko duten Santikurtz ermita konpontzen.


ORIXOL M.E.

## Sagardotegi eta mendi irteera

Orixol Mendi Elkartekoek Andarra mendira irteera egin zuten joan den zapatuan. Ondoren, Hernaniko Otsua-enea sagardotegira joan ziren. Hurrengo irteera Pirinioetara egingo dute ekainaren 7an eta 8an.

**AHT** > DESJABETZEAK

## Nahitaezko lurren desjabetzeen akten kontra mobilizazioak maiatzaren 5ean eta 6an

Maiatzaren 5ean idatziko dituzte aktak, 10:30ean, eta AHT Gelditu! Elkarlanak protesta egingo du udaletxe aurrean

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

AHT Gelditu! Elkarlanak mobilizazioak deitu ditu Aramaion maiatzaren 5erako eta 6rako. Izan ere, Espainiako Sustapen Ministerioak maiatzaren 6an, 7an, 8an eta 13an idatziko ditu nahitaezko desjabetzeen aktak Aramaion.

Maiatzaren 5ean, astelehenean, manifestazioa eta batzarra egingo dute, 20:00etan. Martitzenean, 10:30ean, udaletxe parean protesta egingo dute. Izan ere, Sustapen Ministerioko ordezkariak ordu horretan joango dira aktak egitera.

AHT Gelditu! Elkarlanak adierazi du Aramaion Abiadura Handiko Trenak 600.000 metro koadroko lur eremua hartuko duela. Azaldu du 1.405 metroko luzera eta 70 metroko altuera izango duen biaduktua egingo dutela, eta salatu du horrek sekulako kalteak egingo dituela hainbat auzotan. Haranak zatituko dituen langa artifizial bat ere egingo dutela adierazi du elkarlanak, eta tunelen zulaketatik ateratako hondakinekin mendi magalak zakartegi bilakatuko direla.

**SASKIBALOIA** > EBA-RA IGOERA FASEA

# Mondragon Unibertsitatea EBAko taldea izango da domekan irabazita

Igoera fasea amaitzeko hiru partidu geratzen dira, baina domekan (Iturripe, 18:30) Urdanetari irabazita MUk EBArako txartela eskuratuko du

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Iritsi da ordua. Matematikek ezer baieztatu barik ez zen komeni ospakizunetan hastea, eta hori jakinda, zuri-moreek lanean jarraitu dute. Orain bai, domekan irabazita zenbakiak Iñaki Merinoren mutilen alde egongo dira. *Asteleheneko Goienkaria*-n Edu Mendibilek idatzi moduan, MUk hiru *match point* ditu aurrean, eta domekakoa gainditutа, zuri-moreek azken urteotako lanaren ordaina izango dute: EBA.



**ZUZENKETAK EGITEN** Iñaki Merino, Zornotzaren kontrako partiduko hutsarte batean, zuzenketak egiten. J.ARANTZABAL

**ORDUTEGI BEREZIA**

Zubia dela-eta, oraingo asteburuko partidua domekara atzeratu dute. Hori horrela, zapatuan beharrean MUko jokalariek domeka iluntzean ospatu ahal izango dute garaipena; astelehenean, biharamun gozoa.

Horretarako, baina, sailkapenean ezer jokoan ez duen Urdanetari irabazi behar diote: "Ez da kontrario batere erraza", adierazi du taldeko kide Gorka Kintanak. Jagoba Gamarra ere iritzi berekoa da: "Ez dute aparteko kalitaterik, baina taktikoki oso ondo landuta dagoen taldea da. Akaso, orain izan dezakegun kontrario deserosoenetakoa da".

**AZKEN ASTE HAUEK, LUZEAK**

MUko mutilak deseatzen daude eskuak altxa, oihua bota, eta igoera ospatzen hasteko. Izan ere, azken aste hauek luze egiten ari zaizkie: "Gasteizko garaipena oso garrantzitsua izan zen, eta bazirudien dena eginda zegoela. Baina, azken bi aste hauek gogorrak izan dira, taldeak baja asko izan dituelako, eta gaizki jokatu dugulako. Taldea igartzen dabil igoera eskuratzeko daukagun presioa, eta hainbat jokalarik min hartu izanak ere ez digu on egin. Deseatzen gaude igoera eskuratzeko", adierazi du Kintanak.

Hain zuzen ere, hor du taldeak meritu handiena, joko makalagoa eginda ere partiduak berdin-berdin irabazi dituela.

**JOKATZEKO GOGOZ**

Aste barruan Iñaki Merinok jokalarien konpromiso maila goraipatu du Ointxeren webgunean, bat baino gehiago min hartuta egonda ere jokatzen dabilelako –Alartzia, esaterako–. Alde horretatik, badirudi denboraldi amaiera harmailetatik jarraitu behar duen Gamarra ere jokatzeko moduan egongo dela. "Gaur –martitzena– egingo dut lehenengo entrenamendu saioa, ea zer moduz nagoen ikusteko. Baina bai, kantxa kanpotik gehiago sufritzen da, eta uste ez banuen ere, badirudi azken partiduetan jokatzeko moduan egongo naizela".

Alartzia bera joan den asteko egoera berean dago. Ez zaio komeni jokatzea, baina taldeak behar izanez gero, kantxan izango da. Eta, ikusteko dago Igor Peña gasteiztarrak izterreko lesioa gainditzen duen. Hainbat beterano %50ean egonda, gazteek beste behin erakutsi ahal izango dute –urte osoan moduan– ardurak hartu ahal dituztela.

### Igoera faseko sailkapena

| | |
|---|---|
| Mondragon Unibertsitatea | 29 |
| E. Leclerc Vitoria | 26 |
| Cafes Aitona | 24 |
| Viajes Marfil | 24 |
| Valsay Ardoi | 23 |
| Urdaneta | 21 |
| Baskonia | 20 |
| Zornotza | 20 |
| CNP UPNA | 19 |
| Tabirako Baque | 19 |

ITURRIA: WWW.OINTXE.COM

**KIROLDEGIAK**

## Ibarreko kiroldegi gehienak, itxita

Bihar, maiatzak 1, Oñatiko kiroldegia zabalik egongo da, goizez

**X.U.** > BERGARA

Zubikoa kiroldegiko erabiltzaileek bihar goizean irekita izango dute kiroldegia –09:00etatik 14:00ak arte–, eta ibarrean salbuespena izango da hori, gainontzeko herrietan itxi egingo dituzte-eta kiroldegiak.

Hala, Eskoriatzako kiroldegian senior mailako emakumeek saskibaloi partidua jokatuko badute ere (Eskoriatza-Internacional, 11:00etan), gainontzeko erabiltzaileendako itxita egongo da Intxaurtxueta.

ULMA

ULMA Manutención, Koop. E.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2008ko maiatzaren 9a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta15:00etan bigarrena
Tokia: Santa Ana antzokia - Oñati

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2007ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2008ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2007ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Auditore izendatzea.
6. Soberakin garbiak banatzea.
7. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoen (H.K.S.F.) erabilera.
8. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
10. Kapital ekarpenak derrigor aldatzeko eta, hala badagokio, Estatutu Sozialetako 17, 21, 38, 54, 56, 57 eta 72 artikuluak eta Lehenengo Xedapen Gehigarria aldatzeko akordioak.
11. Kooperatibaren Barne Araudiaren 44 eta 46 artikuluak aldatzea, hala badagokio.
12. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
16. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2008ko apirila*

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuko eta Barne Araudiaren aldaketen testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

Lana Koop. Elk.

LANA

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

**Data:** 2008ko maiatzaren 9a
**Ordua:** 16:00etan, lehenengo deialdia eta 16:30ean bigarrena.
**Tokia:** Oñatiko KULTURA ETXEAN

GAI ZERRENDA

1.- 2007ko Batzar Arruntaren agiri onartzea.

2.- 2007ko Memoria, Kontuak eta Balantzearen azterketa eta onartzea.

3.- Soberakin garbien banaketa.

4.- Lege eta Araudizko erabakiak.

5.- 2008ko Gestio Planaren azterketa eta onartzea.

6.- MCCko eraikuntza-dibisioko kooperatibekin batera 2. mailako kooperatiba bat eratu edo bertako kide egin.

7.- Zaintza Batzordea berritzea.

8.- Beste batzuk: erregu eta galderak.

*Oñati, 2008ko martxoaren 27a*

*Lehendakaria*



**> ATXORROTZ**
Atxorrotz gainean eta Eskoriatzan, hainbat ospakizun izango dira **> 31**




**> INFORMATIKA**
Jaialdia egin zuten Gipuzkoako ordenagailu zaleek, ibarrekoek ere **> 32**

**> IBAN IDIGORAS**
Potemkin taldeko bateria-jolea elkarrizketatu dugu. Potemkin orain geldi egon arren, Ibanek musikaren inguruko hainbat lanetan dihardu **> 27**



# Hasiberrien zinema bultzatzea helburu

Lehen edizioa izateko oso arrakastatsua izan da jaialdia: 41 film labur aurkeztu dira

Lehiaketarako 15 film aukeratu dituzte, eta proiekzioak Kulturaten izango dira

Ikasleek irakasgai bat praktikara eramateko ideiatik sortu zen film laburren jaialdi hori



KARTELA Huhezinemaren lehen edizioko karteleko irudi bat eta logoa. Ekitaldietara publiko guztiari hurbiltzeko dei egin diote antolatzaileek. HUHEZI

**JOKIN BEREZIARTUA** > ESKORIATZA

Huhezinema Film Laburren Jaialdia izango da datorren astean. Euskal Herriko zinemagileek ekoiztutako lanak Arrasateko Kulturate kultura etxean proiektatuko dira. Huhezinema, baina, ez da filmeen proiekziora mugatuko. Zinemaz ikasteko aukera ere izango da unibertsitatean izango diren mintegietan.

Huheziko ikasleak lehen mailako protagonistak izango dira film laburren lehenengo jaialdi horretan. Huhezinemaren lehen edizioa posible egin dutenak, azken finean, unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko laugarren mailako ikasleak izan dira. Ikasleak dira antolatzaileak, eta beste film laburrak bezala, ikasleen filmak ere proiektatuko dira Kulturaten.

Film laburrak ikusteko aukera izateaz gain, zinemaren inguruko mintegiak izango dira, Huheziko areto nagusian. Euskal Herri mailan zein nazioartean ezagunak egin diren euskal zinemagileak izango dira unibertsitatean. Hala, Aizpea Goenaga zinema zuzendari ospetsuaren eta Moriarti Produkzioak taldeko Aitor Arregi eta Jon Garañoren hitzaldiak iragarri dituzte. Lehenak aktoreen zuzendaritzaren inguruan oinarrituko du hitzaldia eta Moriartikoek, bestalde, fikziozko zinema eta dokumentalak izango dituzte hizpide.

**HASIBERRIEI ZUZENDUTA**

*Hasiberriek egina, hasiberrientzako.* Horixe da Huhezinemaren leloa. Ikus-entzunezkoetan hasiberriak diren gazteei begira antolatu dute film laburren jaialdia.

Modan dira film laburrak, eta ikus-entzunezko ikasleei betebetean eragiten dietenik ezin da ukatu. Huts egin ezin daitezkeen jardunaldiak, beraz, etorkizunean ikus-entzunezko proiektuetan murgiltzeko asmoa dutenentzat.

**ARRAKASTA BOROBILA**

Film laburren loraldia bizitzen ari garela gehiegi esatea da agian. Egia dena da lehen edizio honetan –eta aurrekaririk izan gabe– guztira 41 film labur aurkeztu direla jaialdira. Ez da Donostiako Zinemaldia izango, baina ezin da ukatu Huhezinemak izan duen arrakasta borobila izan dela. Aurtengo edizioa esperimentu antzeko bat bezala planteatu zuten Huheziko ikasleek; hau da, hurrengo edizioetan zehar indartuz joango zen ekitaldi sorta gisa hartu zuten hasiera-hasieratik. Lanak aurkezteko epea laburra izan zen arren, 41 lan jaso zituzten guztira; antolatzaileen esanetan, "ikaragarria". Jasotako 41 film labur horietatik 35 fikziozkoak izan dira eta beste sei dokumentalak. Horietatik, Huheziko aukeraketa taldeak 15 film labur hautatu zituen lehiaketarako.

Hego Euskal Herriko lau herrialdeetatik iritsi dira film laburrak eta horrek aniztasuna bermatzen duela uste du Huhezinemaren antolakuntzak. Egileei dagokienez, zinemagile hasiberrientzat zuzendu da jaialdia eta jende gaztea izan da aurkeztu dena. Horietatik, mutilak gehienak. Hori horrela izanik, hurrengorako neskei animatzeko dei egin diete Huhezikoek.

Bestalde, zinemaldi baten ezaugarri guztiak izango ditu Huhezinema film laburren I. jaial-



**'LE PROTECTEUR'** Lehiaketarako aukeratu diren 15 filmeetako bat da Patxi Basabe de Viñaspreren *Le Protecteur*. HUHEZI

## Hasiberrien zinea bultzatzea xede

(43. orrialdetik dator)

diak. Ez da alfonbra gorririk izango, ezta Hollywoodeko izarrik ere. Baina ohorezko epaimahaia eta sari ekonomikoak izango dira.

Epaimahaia ez da nolanahikoa izango. Hala, Jon Andueza eta Jose Mari Goenaga zinema zuzendariena, Andres Gostin, Idoia Astigarraga eta Iban del Campo Huheziko irakasleena eta Mikel Alvarez eta Nerea Ruiz de Azua Ikus-entzunezko Komunikazioko 4. mailako ikasleena izango da irabazleak izendatzeko ardura.

**LAN ONENEK SARIA JASOKO DUTE**
Hiru sari banatuko dira: fikziozko lan onena, dokumental onena eta euskarazko lan onena. 500 euroko saria izango du atal bakoitzak. Ikasleei dagokienez, bestalde, euren lanen proiekzioetara hurbiltzen denak bozkatzeko aukera izango du. GOITBk ere SMS bidezko bozketarako aukera emango du. Hala, Kulturatera hurbildutakoen eta SMS bidezko botoen arabera jakingo da zein den Huheziko film laburrik onena.

### I. Huhezinema

**Maiatzaren 6a, martitzena**
14:00-16:00: *Aktore zuzendaritza* mintegia, Aizpea Goenagaren eskutik. Huhezin.
19:00-22:00: Huheziko ikasleen filmen proiekzioa. Kulturaten.

**Maiatzaren 7a, eguaztena**
14:00-16:00: *Proiektu ezberdinen garapenak: fikzio eta dokumentalak* mintegia, Moriarti Produkzioen eskutik. Huhezin.
18:00-21:00: Lehiaketarako hautatutako filmen proiekzioa eta sari banaketa. Kulturaten.

**Maiatzaren 9a, egubakoitza**
20:00-22:00: Saritutako filmen proiekzioa. Kulturaten

**Iban del Campo** > Huhezinemaren koordinatzailea

## "Ikaslea Ikus-entzunezko sisteman sartzeko helburuz sortu zen ideia"

J.B. > ESKORIATZA

**Iban del Campok odolean darama zinema. Bere begiek errealitatea fotogramatan ikusten dute, kaleko edozein izkinatan kontatzeko istorioak daudela dio. Huhezin irakasle, hura da -nor bestela...- Huhezinemaren koordinatzailea. Irakasgai batetik sortu zen Huhezinemaren film laburren jaialdiaren ideia.**



J.B.

**Nola bururatu zitzaizun film laburren jardunaldiak antolatzeko ideia?**
Ikus-entzunezko Komunikazioko laugarren mailako Ikus-entzunezko Sistema izeneko irakasgai berri baten, ikasleak sisteman bertan sartzea bururatu zitzaidan. Hau da, teoria praktikara eramatea.

2007ko abenduan pentsatu nuen ikasleei irakasgaia gainditzeko film labur bat egitea proposatzea. Beraz, bigarren lauhilekorako ideia izan zen.

**Nola erantzuten zuten ikasleek?**
Oso ondo. Klasean 32 ikasle daude guztira, jende asko da. Baina erantzuna oso ona izan zen, ikasleak gertu azaldu ziren euren kabuz film laburren jaialdi bat aurrera eramateko.

**Zein da Huhezinemaren helburua?**
Ikasgaiko teoria praktikara eramateaz gain, Huheziko ikasleen lanen erakusleiho ere izan nahi dute jardunaldi hauek. Bestalde, film laburrak publiko irekiari helarazi nahi dizkiegu, generoa ezagut dezaten. Hitzaldi eta proiekzio guztiak erabat irekiak eta doakoak izango dira.

**Herritar arruntei jardunaldietan parte hartzeko deia egiten diezu, beraz.**
Bai, edonork har dezake parte Huhezinemako ekitaldietan. Egubakoitzeko film sarituen proiekzioak, esaterako, herritarrei begira antolatu dira.

**Izango al da II. Huhezinemarik?**
Bai, asmoa badago, behintzat. Eta are gehiago, izan duen arrakasta ikusita. Hurrengo urtean, gainera, urte osora begira antolatuko dugu, eta ez dugu, aurten bezala, prisaka ibili beharko.



**Iban Idigoras** > Potemkin taldeko bateria-jotzailea

# "Bidaiatzen dudan bakoitzean musika tresnaren bat ekartzen dut etxera"

Iban Idigoras Potemkin taldeko bateria-jotzailea izateagatik da ezaguna, baina beste gauza asko ere bada. Soinu teknikaria, diseinatzaile grafikoa, musikazalea, ziklista ohia, aktore 'frustratua', parrandazale sutsua bere herrian eta herritik kanpo, hainbat taldetako kolaboratzailea, langilea, perkusionista amorratua... Ipurdia aulki gainean eduki ezin duen horietakoa.

**NEREA MENOR** > OÑATI

**Perkusioa da Ibanen zaletasun handiena. Kaxoi flamenkoa, tinbalak... Dena gustatzen zaio. Potemkin taldeko bateria-jotzailea izateaz gain, hainbat taldetan ibili da perkusionista: Tenk!, Mehazzy, Neubat eta Show Business taldeetan.**

**Noiztik joten duzu bateria?**

Aita bateria-jotzailea zen; ondorioz, nik beti eduki dut bateria bat esku artean. 5 urterekin oparitu zidaten lehenengoa, gezurretakoa. Betidanik ibili naiz kolpetxoak joten mahaian, klasetik askotan bota naute horregatik. Gero ziklista sartu nintzen, baina duela urte batzuk bizikleta laga eta bateriarekin hasi nintzen buru-belarri. Garai hartan, 16-17 urterekin, koadrila bat elkartu eta musika talde bat egiteko gogoa sartu zitzaigun, eta hortik sortu zen Tenk! taldea.

**Musika tresna horretaz aparte, besterik jotzen duzu?**

Perkusionista ikusten dut nire burua. Bateriaz aparte beste edozein perkusio tresna jotzen ahalegintzen naiz. Horietaz aparte, beste hainbat musika tresna ditut etxean. Oporretan joaten naizenean beti ekartzen dut baten bat. Azkeneko bidaiatik, Kantabriatik, harmonika bat ekarri nuen. Andaluziatik gitarra bat ekarri nuen, beste bat Kanarietatik, eta beste hamaika gauza.

**Nola sortu zen Potemkin? Zein da zuen estiloa?**

Gutxi gorabehera 2003ko urtarrilean sortu zen taldea. Latzeneko Iker eta Joxemarik, proiektu berri batentzako bateria-jotzaile baten bila ari zirela, nirekin kontaktatu zuten. Handik gutxira, abeslari moduan ez genuela balio ikusi genuen eta Aixibar sartu zen; nire koadrilakoa izateaz aparte, Erockaldeko lokaletik ezaguna genuen. Estiloaren gainean, etiketa asko jarri dizkigute, hard rock eta beste hamaika, baina guk rocka egiten dugula esaten dugu.

**Orain, Latzenen berragerpenaren ondorioz, erabat geldi dago Potemkin. Zein da taldearen egoera?**

Ba orain pixka bat geldi dago. Latzeneko bira horrek maiatzean amaitu behar zuen, baina azkenean abuztura arte jarraituko du, eta bitartean, Aixibar eta ni gaude bakarrik. Abesti batzuk egiten gabiltza, baina gitarrak pisu handia du, eta, beraz, guk oinarri batzuk edo ahots batzuk bakarrik egin ditzakegu.

**Era berezian gogoratzen duzun kontzertu bat?**

Lehenengo, talde bat osatzea niretzako sekulakoa izan zen, eta oraindik handiagoa horrelako jendearekin. Kontzertuei dagokienez, oso ondo gogoratzen dut behin San Ferminetan Potemkinekin eman nuen bat. Berri Txarrak taldekoekin jotzen genuen eta agertokira irten aurretik 7.000 pertsonaz osatutako publikoa ikusi genuen; ez zait inoiz ahaztuko kontzertu hura, ezta bizi izan nuen sentsazioa ere.

**Aurretik beste talderen baten jotzen zenuen?**

18 urte nituenean jo nuen nire lehen kontzertua. Ordutik hona hainbat taldetan jo dut. Tenk! taldean lehenengo, gero bertsioak egiten zituen beste talde baten, Mehazzy-n. Neubat taldearekin ere kontzertu bat eman nuen haien bateria-jotzailea lesionatu zenean. Duela gutxi arte Show Business-ekin ibili naiz. Orain, Aixibarrekin batera kantu batzuk prestatzen gabiltza Potemkin geldi dagoen bitartean.

**Etorkizunean talderen bat osatzekotan, nolakoa izango da?**

Gaur egun gehien gustatzen zaizkidan taldeak Foo Fighters, Queens of the Stone Age, The Hellacopters, Motorhead eta Governors dira. Rocka da gehien gustatzen zaidana, baina, etorkizunean, ez dut rocka bakarrik egin nahi. Beste estilo batzuk probatu nahi ditut, adibidez funkya. Nahiz eta Potemkinekin jarraitu, beste estilo batzuk ere landu gurako nituzke.

**Nola ikusten duzu musika mundua inguruan?**

Gaur egun diskoak ez dira ia saltzen. Ematen du etorkizuna mugikorra dela, musika eta beste hainbat gauza mugikorrera pasatuko dira. Orain musikari batek bizitzeko duen garrantzitsuena kontzertuak dira. Hala ere, hemen jendeak tabernetan egoteko ohitura du, eta niri oso ondo iruditzen zait. Baina, behintzat, herriko taldeak ikustera joatea ondo egongo litzateke. Taldeok gure buruhausteak ditugu eta lan handia egiten dugu. Askotan ez dugu hori errekonozituta ikusten. Agian, diruarengatik izan daiteke, ez dakit, baina gehiago ikusten da jendea poteoan kontzertuetan baino.










NEREA MENOR

**PERTSONALA**

**Herrria:** Oñati. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Soinua, Argazkilaritza eta Telekomunikazioak. **Musikaz aparte bestelako zaletasunik?** Diseinu grafikoa. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Inposatzen diren gauzak. **Gomendatzeko moduko disko bat:** Governors-en azken diskoa. **Musika talde bat:** AC/DC beti gustatu izan zait. **Musikari bat:** Nirvanako bateria-jotzaile izandako Dave Grohl. **Parrandarako leku bat:** Oñati. **Bidaiatzeko leku bat:** Cadiz. **Zure ametsa:** Ingurukoak ondo egotea eta datorrena aprobetxatzea.

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Zubieta 80 m². Berritua.
- Aranerreka 75 m². Eguzkitsua.
- Elusu baserria. Berritua.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 67 m². Berritua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berritua.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta.75 m². Txokoarekin.
- Simon Arrieta.80m².Prezio ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Buztinzuri 67 m². Eguzkitsua.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.
- Zurrategi plaza 90 m². Terraza.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Berritua.

DEBA **GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- San Lorentzo, eraikuntza berria
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Ortuibar, duplexa, ia berria
- Koldo Elizalde, 87 m², oso ondo
- Artekale, 89 m², ondo
- Zubieta 70 m², ondo
- Urdangarin p., 132 m², berritzeko
- Irizar p., 89 m², oso ondo
- Matxiategi, 73m², berritzeko
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- Aranerreka, 80m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m², oso ondo
- Simon Arrieta, 57m², terrazarekin.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Bergara.** Labegaraietan 50 metro koadroko etxebizitza. Berritua eta erdi jantzia. Berogailua eta hidromasajea. Dena kanpoaldera begira. Penintsula-sukalde irekia, egongelarekin. Bi logela eta despentsa txikia. 28.800.000 pta. 635 71 04 55.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Peñiscola (Castello).** Apartamentua errentan hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxea hartu nahi dugu errentan. Bikote arduratsua gara. 669 12 25 63.

**Arrasate.** Urtebeteko umea daukan bikote batek etxea errentan hartuko luke. 610 67 12 22.

**Bergara.** Etxea hartu nahi dut errentan. 648 13 35 62.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Oñatin bada hobe. Etxe txikia nahiago. 652 71 21 23.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 699 28 99 06.

**Aretxabaleta.** Lanean hasi berri naiz eta bertan edo inguruan -bereziki Arrasaten- logela alokatu nahi nuke. Hasiera baten, urtebeterako. 653 74 28 83.

**Arrasate.** Gela bat alokatzen da erdialdean, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Abuztuaren bukaera arte bakarrik. 630 71 35 83.

**Bergara.** Erdialdean (Irizar pasealekua) gela txikia errentan ematen da. 649 63 23 24.

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxea osatzeko. 688 62 71 30.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia errentan Bonifacio Laskurain plazan. Auto bat edo birentzat. Deitu 677 91 68 38 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara eta Arrasate.** Jardunean dagoen taberna bat alokairuan hartuko nuke. Deitu 697 20 78 24 telefonora.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da astean behin etxea garbitzeko. 943 79 41 15.

**BERGARA**

**LEIZE jantzi dendak saltzailea behar du. Curriculumak ekarri dendara.**
**943 76 26 99**

**ARETXABALETA**

**Sukaldaria edo sukalde laguntzailea behar da.**
**662 13 27 55**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Mari. Deitu 943 53 33 92 telefonora.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Mari. Deitu 943 53 33 92 telefonora.

**Arrasate.** Astean zehar, ordu batzuk etxeak garbitzeko neska euskalduna prest. Deitu 690 19 82 79 zenbakira.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Deitu 667 87 99 16 telefonora.

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu atariak eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. Deitu 663 04 53 99 zenbakira.

**Bergara** edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egunez edo gauez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dauzkat. Deitu 686 99 59 41 zenbakira.

**Bergara** edo Arrasate. Neska gertu ekainean eta uztailean haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko. Gizarte Integrazioa ikasten ari naiz. Deitu 636 01 60 15 telefonora.

**Bergara.** Emakumea garbiketa lanak zein haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu 627 03 16 40 telefonora.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 664 12 43 25 zenbakira.

**Bergara.** Neska gertu arratsaldez edo egun osoz lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko (egunez zein gauez), edo garbiketak egiteko. Deitu 678 80 96 01 telefono zenbakira. (Esperanza)

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**edo www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA + ASTELEHENEKO GOIENKARIAN: 17 EURO ASTEBETE (BEZ BARNE).

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK**
**(MODULUA).**

**DEBAGOIENA**

**Sartu hemen zure publizitatea.**
**943 25 05 05**

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).
OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Bergara.** Paperak dituen emakumea haur zein nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 686 99 59 41.

**Bergara.** Paperak eguneratuta dituen emakumea lan bila dabil. Garbiketa lanetan, zerbitzari edo sukaldeko laguntzaile. Deitu 663 15 39 92 zenbakira.

**Debagoiena.** Adinekoak zaintzeko emakumea gertu. Orduka, egun osoz edo gauez. Deitu 678 80 96 01 telefonora.

**Debagoiena.** Arratsalde edo asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. Deitu 666 21 88 95 zenbakira.

**Debagoiena.** Ekuadorko emakume arduratsua etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan lo egiteko prest. Paperak ditut. Deitu 688 68 06 96 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu 696 11 01 94 edo 943 77 16 73 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea etxean lan eta lo egiteko prest. Deit 669 33 65 54 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Deitu 618 94 19 93 zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Arkaitz. Deitu 622 81 53 31 telefonora.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lanetarako prest. Aaron. Deitu 622 84 08 86 telefonora.

**Debagoiena.** Lantegian edota makinak garbitzen lan egingo nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. Deitu 656 66 49 75 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska arduratsua garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Deitu 661 06 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko. Esperientzia eta lan egiteko gogoa. Irakasle ikasketak egiten ari naiz. Deitu 669 61 97 71 zenbakira.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 696 48 42 50 telefono zenbakira.

**Emakumea** prest pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko, baita etxeko lanak egin edo garbiketak egiteko. Deitu 686 99 59 41 telefonora.

**Mutil gaztea** edozein lanetarako prest. Informatika, auto mekanika, txapa eta pintura, argiketari eta igeltsero ezagutzekin. Deitu 697 66 79 37 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. Deitu 645 72 25 24 zenbakira.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa eta DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Neska euskalduna, haurrei eskola partikularrak emateko prest. Deitu 690 19 82 79 zenbakira.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen ditut. 21:00ak aldera deitu. 615 73 45 53.

**Debagoiena.** Mutila matematika eskolak emateko gertu. Maila guztiak, Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino. Baita ere urritasunak dituzten ikasleei. 696 38 10 07.

**Eskola partikularrak** ematen ditut. Ekainean eta uztailean, Lehen Hezkuntzako umeei. Deitu 650 23 34 98 edo 943 03 76 04 telefonora.

## 6/ MOTORRA

### 603. ALOKATU

**Autokarabana** hartuko nuke errentan abuztuan. Lau pertsonarendako modukoa gutxienez. 677 98 54 91.

**DEBAGOIENA**

**Autokarabana berria errentan ematen da.**
**943 71 25 30**

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Hiru hektareako zarratua basurdeekin, txakurrei erakusteko. 200 euro. 678 72 75 72.

**Txakurkumeak.** Golden Retriever txakurkumeak salgai. 300 euro. 677 05 39 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Apalategi** metalikoak salgai. 100x60 neurrikoak. Deitu telefono honetara:. 943 76 11 21.

Autoan umeak eramateko segurtasun aulkia salgai. 656 78 64 64.

**Autorako** bozgorailuak salgai. 50 euro. 617 13 17 51.

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

**Bizikleta** berria salgai. Erabili gabea. Parrilla eta saskia dauzka. 655 74 48 85.

**Brain Trainning** berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

**Carry-Bike** salgai, 4x4 autoetan bizikletak eramatekoa. Bi bizikletarendako. 50 euro. Deitu 679 10 95 23 zenbakira.

**Erlojua.** Festina markako emakumeentzako urrezko erlojua eta esku-kronometroa salgai. Berriak. Dena 400 euroan. Nereagatik galdetu. 943 79 68 18.

**Garajerako atea** salgai. Erabili gabea. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 m. Gaineko finkoa: 0,50 m. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. 605 75 96 11.

**Jaunartzea** egiteko marradun alkandora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

**Karro-denda** salgai, sukalde-denda independentearekin. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako. Osagarri ugari. Egoera onean, beti garajean gordeta. Prezioa: 1.600 euro. Deitu 615 72 47 43 zenbakira.

**Lehorgailu** ia berria salgai. Fagor etxekoa. 250 euro. Deitu 943 77 00 26 zenbakira.

**Mahai** obalatua salgai. 136x90 neurrikoa. Luzagarriekin. Asier. 617 17 15 88.

**Marshall 800** anplifikadorea salgai. 100 watt. Balbulekin. 800 euro. 630 60 90 53.

**Mendiko bizikleta** salgai. 750 euro. Estreinatu gabea. S-Crash markakoa. Esekidura bikoitza, atzean eta aurrean Rock-Shox, Shimano-XT 2007, disko-balazta Magura Julie hidraulikoa. 652 73 83 25.

**Olympus E-410** argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 milimetroko eta 40-150 milimetroko objektiboekin. Bateria eta kargadorea. USB eta bideo kableak. Olympus Master 2 Software CD-ROMa. Erabili gabe dago. 650 euro. 660 80 09 71.

**PSP Slim** bideojoko berria salgai. 8 GB-ko memoria eta eramateko poltsarekin. 250 euro. 665 74 91 28.

**PlayStation I** salgai. Erabili gabea. Bi aginte tresnarekin. 945 44 52 96.

**Teleskopioa** daukat salgai. Astrolon markakoa. 402 potentzia. 656 78 64 64.

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa** erosi nahi dut. 619 88 26 84.

**Lursaila.** Autokarabana bertan uzteko lursaila edo kanpineko partzela erosiko nuke. 600 08 27 89.

### 804. HARTU

**Hozkailu** zahar bat hartuko nuke. 943 79 66 00.

### 806. GALDU

**Betaurrekoak** galdu nituen martxoaren 29an Arrasaten. Pastarik ez dute eta oso arinak dira. 659 36 88 75.

**Diru-zorroa** galdu dut Bergaran. Pantera Arrosaren marrazkia dauka kanpoan. Barruan pendrivea dauka. 685 72 90 04.

**Erlojua** galdu dut Loramendi Kirolak eta Super BM artean. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. 630 75 44 19.

**Haur manta** polar bat galdu nuen igandean Bergaran. Horia eta letra eta zenbakiekin. 678 00 08 43.

**Patin motxila** gris eta beltza galdu dut Bergaran. Barruan neskatila zapatak dauzka. Aurkitu baduzu, dei egidazu. Deitu 943 76 07 89 zenbakira.

### 807. AURKITU

**Paparrekoa.** Bergarako Artekale kalean urre koloreko paparrekoa aurkitu dute. Paparrekoak erdian harri zuri bat dauka. 943 76 13 86.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate eta Iruñea** arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igandeetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. Deitu 635 75 94 57 telefono zenbakira.

**Autoa konpartitu.** Oñati (edo inguruko herriak) eta Leioako unibertsitate arteko eguneroko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil datorren urteari begira. Deitu 670 52 58 79 telefonora.

**Perkusionista.** Musika talde baterako perkusionista behar da grabazioetan eta zuzeneko emanaldietan jotzeko. Deitu 656 30 97 48 telefonora.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Taldekide bila** dabil Bergarako Emon taldea, taldea guztiz osatzeko tronboi eta tronpeta jotzaile bila. 675 70 81 93.



**Itziar Olabe** eta **Jose Luis Ormaetxea**ren zilarrezko ezteiak. Ederto pasau giñuan Espaloian eginddako bazkarixan. 25 oso gutxi dira, laster beste bazkaritxo bat, e? Ormaetxea, Olabe, Eguren eta Arantzabal familian partetik zorionak eta urte askotarako, bikote!



Bergaran bizi diren **Julian Beitia** eta **Benita Beitia** maiatzaren 3an ezkondu ziren Arrasaten, Garagartzan, orain dela 50 urte. Urrezko ezteietako ospakizunak Arantzazun eingo dituzte. Familiakoen partetik, zorionak!



**Manu Curado** bergararra eta **Aloña Larrañaga** antzuolarra zapatuan, maiatzaren 3an, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Familiakoen partetik, zorionak, muxu handi bana eta eguna ondo-ondo pasa!

## hildakoak

- **Joxe Arbelaitz Aranburu.** Osintxunn, apirilaren 22an. 76 urte.
- **Manuel Vizcaino Diaz.** Oñatin, apirilaren 24an. 67 urte.
- **Ana Garcia Tena.** Antzuolan, apirilaren 25ean. 94 urte.
- **Aratz Ugarte Larreta.** Oñatin, apirilaren 25ean. 17 urte.
- **Edurne Aiastui Alberdi.** Oñatin, apirilaren 26an. 52 urte.
- **Rafael Carmona Merino.** Arrasaten, apirilaren 26an. 74 urte.
- **Margarita Sanchez Atorrasagasti.** Bergaran, apirilaren 27an. 85 urte.
- **Fernando Nieto Suberbiola.** Bergaran, apirilaren 27an. 75 urte.
- **Alejandro Iruin Garmendia.** Bergaran, apirilaren 27an. 55 urte.
- **Itxaso Unamuno Agiriano.** Arrasaten, apirilaren 28an. 44 urte.
- **Andres Plazaola Otadui.** Arrasaten, apirilaren 29an. 54 urte.

ESKELA

## Andres Plazaola Otadui

Arrasaten hil zen, 2008ko apirilaren 29an, 54 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, apirilak 30, 19.00etan, Arrasateko Udala auzoko San Esteban parrokian.

—

GOIENAk eta BATU-BANATUk bat egiten dute senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak — batu-banatu banaketak neurrira

Arrasaten, 2008ko apirilaren 30ean.

HILETA

## Andres Plazaola Otadui

Arrasaten hil zen, 2008ko apirilaren 29an, 54 urte zituela.

Anai-arrebak: Jose Ramon, Inazio eta Izaskun Arkarazo, Jesus Mari eta Marisol Torrontegi, Estepan eta Amaia Madinabeitia, eta Arantxa. Ilobak: Joanes, Garazi eta Mirari.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, apirilak 30, 19.00etan, Arrasateko Udala auzoko San Esteban parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

## Edurne Ayastuy Alberdi

2008ko apirilaren 26an hil zen, 52 urte zituela.

*Agurrik egin gabe,*
*bapatean*
*izkutatu zara;*
*bihotzean gordetzen zaitugu*
*izan zaren osoa.*



Zure koadrilako lagunak: Axun, Mertxe, Maite, Mari Carmen, Izaskun,Rakel eta Maria Eugenia.
Oñatin, 2008ko apirilaren 30ean

URTEURRENA

## Miren Abarrategi Agirre

## Tomas Uranga Olabe



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 4an, 11:00etan, Arrasateko Garagartza auzoko San Migel elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Joxe Arbelaitz Aranburu

Bergaran hil zen 2008ko apirilaren 22an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Osintxun, 2008ko apirilaren 30ean.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.
**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)**



Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

## berriak

> 'ERREPORTAJEA'

### Landare sikuen gaineko erreportajea maiatzaren 5ean

Joan den egubakoitzeko GOIENKARIAn iragarri genuen landare sikuen gaineko erreportajea eskainiko zuela Goiena Telebistak. Bada, erreportajearen emisioa atzeratu egin dute datorren astelehenera, Bergarako osoko bilkura zela-eta. Beraz, Jose Antonio Aperribaik Bergaran zabaldu berri duen landare sikuen lokalaren gaineko erreportajea maiatzaren 5ean izango da, 21:47an.

> 'HARMAILATIK'

### 'Harmailatik' saioan, MU saskibaloi taldearen partidua

Domeka honetan du MU saskibaloi taldeak EBA ligara igotzeko lehen aukera. Hain zuzen ere, hiru partidu gelditzen zaizkio taldeari, eta hiruretako bat irabazita igoko da kategoriaz.

Lehenengo aukera, esan bezala, domekan izango du. Izan ere, Urdanetaren aurka jokatuko du Iturripen. Partiduak uzten dituenak ekarriko ditu *Harmailatik* saiora Xabier Urtzelaik.

> ARRASATE IRRATIA

### Politika eta opariak, datorren astean Arrasate Irratia

Politikak Arrasate ahazten ez duen bitartean, Arrasate Irratiak ere ez du politika ahaztuko. Hori horrela, datorren asteari begira aurreikusten dute Eusko Abertzale Ekintzari aurkeztu gura dioten zentsura mozioaren gaineko ibilbidea aurreratu samar izango dela, beraz, irratiko lankideek ere landuko dute gai hori.

Bestalde, datorren astean ere izango dituzte opariak entzuleen artean zozketatzeko. Batetik, Gore Gore Girls eta Foxxi Boxxi taldeak ikusteko sarrerak zozkatuko dituzte. Horrez gain, Victor Aneiros blues-jazz musikari galiziarraren azkeneko diskoa (*Héroe Secreto*) ere zozkatuko dute. Parte hartzeko: 943 25 05 05, *irratia@goiena.com* edo *www.goiena.net*.

## ZUZENKETA

Joan den asteko *Telebegi* iritzi zutabea, *Gabilondo news* izenburukoa, Aitor Arregik idatzi zuen, baina Edorta Aranaren izenean argitaratu genuen. Barkamenak eskatu nahi dizkiegu bi iritzi emaileei eta baita irakurleei ere.

**'BETIZU IZAR ARTEAN'** > DOMEKA, 19:00

# 'Betizu izar artean' filma domekan Goiena Telebistan

Baleuko produkzio etxeak ekoiztutako 'Betizu izar artean' filma eskainiko du GOITBk domekan




**'BETIZU IZAR ARTEAN'** Filma ikusteko aukera izango duzue. GOIENKARIA

GOIENKARIA > ARRASATE

Etxeko txikiendako euskarazko filma eskainiko du Goiena Telebistak domekan. *Betizu izar artean* Baleuko produkzio etxeak ekoiztutako eta umeei zuzendutako filma da.

Betizuen galaxian Uztarrock ikuskizun-aretoa dago, eta bertan egiten dira galaxiako ikuskizun garrantzitsuenak. Betizuek bertan jotzeko gonbita jasoko dute eta joan egingo dira, Betizu horren kontra badago ere. Bertan konturatuko dira Uztarrock musikaren bitartez galaxia kontrolatzeko plan baten barruan sartzen dela.

**'HUHEZINEMA'** > MARTITZENA, 22:15

# Huhezinema fikziozko film laburren eta dokumentalen lehiaketako lanak, GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE

Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko laugarren mailako ikasleek antolatu dute Huhezinema, dokumentalen eta fikziozko film laburren lehiaketa. Antolatu duten film laburren lehenengo lehiaketa da eta dagoeneko jasota dituzte film guztiak. Hain zuzen ere, 41 film labur aurkeztu dituzte, horietatik 35 fikziozko film laburrak eta sei dokumentalak.

Maiatzaren 6tik 9ra egingo da Huhezinema jaialdia, Eskoriatzako fakultatean eta Arrasateko Kulturaten. Jasotako film horietatik guztietatik zortzi maiatzaren 6an eskainiko dituzte, Kulturaten. Bertaratzen direnek ikusitako film horietatik onena irudituko zaiena aukeratu beharko dute, baina, Kulturatera joan ezin dutenek, Goiena Telebistan izango dute film gustukoenari botoa emateko aukera; hain zuzen ere, egun berean, 22:15ean eskainiko ditu GOITBk film laburrok. Gero, SMS bitartez botoa emateko aukera egongo da, eta Kulturaten eta Goiena Telebistaren bitartez jasotako botoen bidez irabazlea aukeratuko da.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

### Déjà vu

Lehengo astean, tarte honetan, nire izenpean agertu zen arren, benetan Aitor Arregik idatzi zuen *Gabilondo news* artikuluaren aitzakian, albistegien kontura arituko naiz ni ere. Izan ere, azpimarratu gurako nuke zein interesgarria izaten den notizia bera albistegi desberdinetan nola jorratzen duten ikustea. Kanalaren ideologia, beste saioetan baino garbiago suma daiteke-eta albistegietan. Eta kanalen arteko konparaketa eginez, askoz errazago. Beno, akaso euskal arazoa deitzen duten horren salbuespenarekin, hor diktadurapean aritzen direla dirudi. Gai horretan ez dute ikuspegi, testuinguru eta bereizketarik egin gura izaten. Bestela, Arrasate-Mondragon bilakatu zen martxoko egun tristeak gogoratu besterik ez dago.

Oraingoan, ordea, ETBko bi kanalen artean ematen den beste efektu desatsegin bat aipatuko dut: euskarazko albistegia ikusi duenak, gauza bera irentsi behar izatea ETB2n. Eta, are eta deigarriagoa egiten da eguerdiko bideo berberak gauera pasatzen dituztenean. Hor, errepikatua eta moztu/itsatsi betelan hutsaren inpresioa biderkatu egiten da.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Ilunpean saioa; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia, gazteendako kontuak, eta fibromialgia gaixotasunaren gainekoak...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguaztenera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Goienkariaren aurrerapena
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* edo *goiena.net* helbidean, irratiaren blogean)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegia, errepikatuta.

## GOITBko programazioa

**Eguena, 1**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Gertutik. **14:30**Errepor-ttipi ttapa. **15:00** Kantari. **16:00** Betizu izar artean. **17:00** Marrazki bizidunak. . **20:00**Ur eta lur. **20:30**Eltze beroa**21:30**Erreportajea ttipi ttapa. **22:00**Berbaire. **22:30**Erreportajea. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Egubakoitza, 2**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Betizu izar artean.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Euskaldunak hizketan. **14:00**Erreportajea.**14:30**Ikusmira. **15:00**Animalia. **15:30**28 klip**16:00**Marrazki bizidunak.**19:00**Jazz gauak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Ilunpean. **23:15** Teknopolis.**23:45**Erreportajea. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Zapatua, 3**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Gertutik. **14:30**Errepor-ttipi ttapa. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Euskaldunok hizketan. **19:30**Ikusten. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Eltze beroa**21:30**Erreportajea ttipi ttapa. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 4**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Euskaldunak hizketan. **14:00**Erreportajea.**14:30**Ikusmira. **15:00**Animalia. **15:30**28 klip**16:00**Marrazki bizidunak.**19:00**Betizu izar artean. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis.**23:45**Ilunpean.**00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 5**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusten. **18:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Animalia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunako. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 6**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**Animalia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15** Euskaldunak hizketan. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 7**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Euskaldunok hizketan. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Animalia. **18:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. **20:45** Berriak. **21:15** Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Euskal artzainak. **22:15**ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **23:45**Gaurkoak. **23.47**Jazzmina. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 8**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Euskal artzainak. **14:45**Berriak. **15:15**Ikusmira. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Ur eta lur. **16:17**Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Kirolari. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Teknopolis. **00:15**Emisio amaiera.

# Apirilak 30-Maiatzak 8

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 53 29 15

## Kontzertua



ARRASATE

**> 101'ers taldeko Richard Dudanskyren El Doghouse taldea, 3.60 aretoan**

Richard Dudanskyk kontzertua egingo du El Doghouse bere talde berriarekin. Tom Lardner country gitarra-jolea ere han izango da. Aurretik, Seven Magnificents taldeak joko du. Bihar, eguena, izango da, 23:00etan.

## Lehiaketa



BERGARA

**> Jaietako elkarteen arteko bakailao lehiaketan izena eman daiteke gaur**

Gaur, hilak 30, bukatzen da epea herriko elkarteek jaietako bakailao lehiaketarako izena eman dezaten. Horretarako, kultura etxera deitu behar da, 943 77 91 59 telefonora. Udalak 135 euroko dieta emango dio bikote bakoitzari.

## Erakusketa



OÑATI

**> Mugarik Gabeko Medikuek erakusketa ipini dute Oñatiko kultura etxean**

*Crisis olvidadas: vidas ignoradas* izenburuarekin, Somalia, Kongo, Txetxenia, Kolonbia eta beste leku batzuetako gatazken gaineko argazki erakusketa jarri dute Mugarik Gabeko Medikuek. Egunero dago zabalik, 18:30-20:30.

# Musika

ARRASATE

**> The Sewer Rats taldeak kontzertua egingo du 3.60an**

Alemaniako The Sewer Rats punk-pop taldeak *Rat attack* diskoa aurkeztuko du 3.60 aretoan. Aggressive Combat eta Material Rechazado taldeek ere joko dute gau horretan.

Etzi, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean.

ARRASATE

**> Disko-jartzaileek emanaldia egingo dute 3.60 aretoan**

Lalas vs DJ Mister (sweet & vicious) dantzarako musika emanaldia izango da.

Zapatuan, maiatzak 3, 3.60 aretoan, 04:00etan.

DONOSTIA

**> Arrasate Musikaleko Big Band, Victoria Eugenian**

Arrasate Musikaleko Big Bandak Victoria Eugenian joko du maiatzaren 5ean. Epaimahai bat egongo da taldea baloratzen, Donostiako Jazzaldian parte hartzeko hautagai dira-eta.

Maiatzaren 5ean, astelehena, 20:30ean.

# Antzerkia

ARRASATE

**> 'Sexo gratis' antzezlana egingo du Kunka antzerki taldeak**

*Sexo gratis* antzezlana ikusteko aukera izango da maiatzaren 4an Kunka taldearen eskutik. Umorezko antzezlana da.

Sarrerak salgai daude 943 00 12 00 telefonora deituta, *www.kutxa.net* webgunean edo Kutxaren Servikutxa sarean.

Maiatzak 4, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

# Lehiaketak

ESKORIATZA

**> Jaietako egitarauaren azal eta esaldia aukeratzeko lehiaketak**

San Pedroetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Edozeinek parte har dezake, 15 x 25 cm-ko irudiekin. *2008ko Sanpedruak Eskoriatza* esaldiak agertu beharko du irudian. Irabazleak 300 euro jasoko ditu. Lanak udaletxera edo kultura etxera eraman behar dira.

Bestalde, esaldi lehiaketa ere antolatu dute, eta maiatzaren 23tik ekainaren 6a arte egingo dute. 13 urtetik gorako eskoriatzar guztiek parte har dezakete, hiru eta bost lagun arteko taldeetan. Gura adina esaldi aurkez ditzake talde bakoitzak, jaiak ondo pasatzera gonbidatzeko; jaiak, euskara eta gazteak elkartuz; jaiak neurrian ospatzea desiratuz… Esaldiok udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan jarriko dituzte posta kutxetan bota behar dira.

Irudi lehiaketarako lanak entregatzeko mugaeguna maiatzaren 30a da.

ARRASATE

**> 'Sexmetraia 08' film laburren lehiaketa deitu dute**

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak *Sexmetraia 08* lehiaketa deitu du, aurten bigarren aldiz. Helburua da film laburren bitartez sexualitatea bizitzeko dauden modu desberdinak kaleratzea eta goraipatzea. Film laburren gaia da sexualitatea eta horren barruan dauden aukerak. Filmok aurkezteko mugaeguna irailaren 30a da. Lehen saria 1.500 euro da; Sexologia Euskaraz saria, 600 euro. Aurten, gainera, Sexmugidelako atal berria dago: sakelako telefonoz grabatutako film laburrak, gehienez ere 60 segundokoak. Honako helbidera bidal daitezke: *sexologiazerbitzua@arrasate-mondragon.net*. Atal horretan, 300 euroko saria emango dute.

Argibide gehiago, Sexologia Zerbitzuan (943 25 20 66); *www.sexologiazerbitzua.com*.

# Ospakizunak

ARRASATE

**> Corazon de Encinak kultura astea ospatzen jarraituko du**

Extremadurar kultura elkarteak honako ekintzak antolatu ditu datozen egunotarako: *Recuerdos del centro* delako erakusketaren inaugurazioa (maiatzak 3, 13:00etan) eta umeendako txokolate-jana (maiatzak 8, 19:00etan).

Euren egoitzan izango dira ekintzak.

PROPOSAMENA

ESKORIATZA

**> Atxorrotz Eguna ospatuko dute domekan**

Atxorrotzera 09:30ean igoko dira; han, meza, trikiti emanaldia, mokadua… 18:30ean, euskal dantzak izango dira Herriko Plazan, eta herritarrek egindako tortillak salduko dituzte. Bukatzeko, txistulariekin erromeria izango da. Batutako dirua Eskoriatzako Atzeratuen Taldeari eta Atxorrotx GKEri emango diete. Bestalde, hilaren 6 eta 8an, Atxorrotzen gaineko hitzaldiak izango dira.

Atxorrotz Eguna domekan, maiatzak 4, izango da.



BERGARA

**> Irukurutzeta Eguna ospatzeko dei egiten diete bergararrei**

Irukurutzeta Eguna ospatzeko aukera dute maiatzaren 4an, domeka. Salda eta txorizoa banatuko dituzte Irukurutzeta gainean, 11:00etan, eta goiz osoan trikitilariek jardungo dute hantxe.

Maiatzaren 4an, domeka.

# Erakusketak

BERGARA

**> Joxerra Elortzaren erakusketa ikusteko aukera Aroztegin**

Joxerra Elortzaren lanen erakusketa dago Aroztegi aretoan. Margolan erakusketa horretan, irudi geometrikoen koadroak erakutsiko ditu.

1978az geroztik 50 erakusketa baino gehiago egin ditu Elortzak, bakarka zein taldeka, eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Gure Artea lehiaketako lehen saria irabazi zuen.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

# Zinema

ELGETA

**> 'Mataharis' filma emango dute Espaloia kafe antzokian**

Iciar Bollain zuzendariak 2007an zuzendutako *Mataharis* filma emango dute Elgetako Espaloia antzokiko zineklub emanaldian.

Gaur, eguaztena, 21:30ean.

ARRASATE

**> 'La guerra de Charlie Wilson' eta 'Cronicas de Spiderwick'**

*La guerra de Charlie Wilson* filma emango dute hilaren 2an, 22:00etan, eta 3an, 19:30ean, eta *Crónicas de Spiderwick* delakoa, denondako emanaldian, hilaren 3an, 17:00etan.

Amaia antzokian izango da.

# Bestelakoak

ELGETA

**> Ludotekaren azken saioa egingo dute gaur arratsaldean**

Ludoteka agurtzeko merienda egingo dute herriko umeek. Zerbitzua herriko 20 umek erabili dute sei hilabetez.

Gaur, eguena, kultura etxean, 16:00etatik 19:00etara.

ARRASATE

**> Larunblai jaialdia izango dute umeek etzi, egubakoitza**

Txatxilipurdi elkarteak antolatuta, Larunblai egiteko aukera izango dute herriko umeek. Seber Altube plazan batuko dira, eta eskulan tailerrak, jolasak… izango dituzte.

Seber Altuben, 17:00etatik 19:00etara.

**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-04-30

# Informatikazaleen festa

**SEIEHUN** Tolosako Usabal kiroldegian elkartu dira aste bukaeran Gipuzkoa osoko 600 informatikari inguru

**'WILLIX'** Bergarako lagun koadrila bigarren urtez jarraian joan da Gipuzkoa Encounterrera; denera, 15 lagun

**MUSIKA SARIA** 'Willix' taldeko Legorretako 'Dittbi'-k kantu onenaren saria jaso zuen Usabal kiroldegian

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Informatikazaleek Tolosan izan dute hitzordua aste bukaeran. Izan ere, Gipuzkoa Encounter ospatu da Tolosako Usabal kiroldegian zapatu eta domeka bitartean. Informatika, Internet, jokoak, musika… denetarik egiteko aukera izan dute bertara joan diren 600 lagun inguruk.

Ibarretik ere hainbat lagun joan dira; batez ere, Bergara eta Arrasateko gazteak izan dira bertan. Informatika ikasketak dituztelako, edo, beste barik, informatika gustuko dutelako izan dira Tolosan gazte hauek.

**BIGARREN URTEZ JARRAIAN**

"Bost urte dira Euskal Encounterrera joaten hasi ginela. Iaz, Gipuzkoa Encounter ospatu zen lehenengoz, eta joatea erabaki genuen. Aurten ere, errepikatu egin dugu", esan du Damian Madinabeitia bergararrak. Bergaratik hamabost lagun inguru joan dira: "Baina denak ez gara Bergarakoak", gaineratu du Madinabeitiak. "Antzuola, Tolosa, Donostia, Legorreta, Gasteiz eta Durangoko lagunak ere badaude gure taldean", azpimarratu du.

Horrelako ekitaldietara joateko sortu zuten *Willix* izeneko taldea Bergarako lagun koadrila honek. Urtero 25 lagun inguru elkartzen dira Euskal Encounterrera eta Gipuzkoa Encounterrera joateko. Taldekideak 20-25 urte bitartekoak dira.

**KANTU ONENAREN SARIA**

Hainbat aktibitate egin dituzte aste bukaeran: jokoekin lehiaketak, diseinua, muntaia, musika sortu… Gainera, sari eta guzti etorri dira *Willix* taldekoak: Legorretako Kepak, *Dittbi*-k, High Quality (maila altua) saileko abesti onenaren saria irabazi zuen.

Egun horietarako propio egokitu zuten Usabal kiroldegia: mikro-uhinak jarri zituzten, parte-hartzaileek bertan egin zitzaten jatorduak. Lotarako lekua ere egokitu zuten; batzuk camping eta guzti joan zirela esan du Madinabeitiak.




**JENDETSUA** Zapatu eta domekan jendez gainezka egon zen Tolosako kiroldegia. DAMIAN MADINABEITIA

## ahobero

### "Nire ezinezko ametsa Marilyn Monroe da"

**Julio Jose Iglesias** > Abeslaria

Bizitzan dena eskura izan du Julio Iglesiasen semeak. Hortaz, ezinezko ametsetan pentsatzen du; izan ere, gura izan dituenak lortu ditu bere guraso Isabel Preysler eta Julio Iglesiasen ospeari eta diruari esker. Baina interesgarria izango litzateke Marilyn Monroeren iritzia zein den jakitea. Bizirik ez dagoenez, ezin izango dugu jakin ametsa beteko ote litzatekeen.

## iturri onetik

### Gorpuzti jaietan Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorrak izango dira Oñatin

Maiatzaren 24an izango da ikuskizuna Santa Ana aretoan, arratsaldeko 5etan. Gorpuzti jaiak aprobetxatuz, etxeko txikiek gozatzeko ikuskizuna eskainiko dute Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorrek. *Irriz-irri* euren laguarren lana eskainiko dute.

Dagoeneko salgai daude sarrerak Kultura etxean hiru euroren truke. Egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira sarrerak.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Seko lotsatuta

Itxoin egin dut iragarkiko etxebizitza saldu den arte. Ez nuen berriro gaia atera nahi, inork ez zezan pentsa lotsa aitortzeko aitzakiatan salmenta auspotzen ari nintzenik. Seko lotsatuta egon naiz bitartean.

Idatzi nuen iragarkia, eta hark eman zidan artikulurako ideia. Eta orri berean ekin nintzaion, bata eta bestea toki berera joatekoak zirelako. Baina ez nintzen ohartu hizkien kontagailuak iragarkia ere barne hartzen zuela, eta osotasun hura hartuta GOIENKARIAk osorik argitaratu zuen kontrazalean. Pentsa nola sentitu nintzen ostiralean iragarkia hemen ere aurkitu nuenean. Sinistuko ote zuen inork hanka-sartzea izan denik?

Saldu da, eta ez txoko honi esker. Akabo. Orain, berreskuratuko al dut zure konfiantza, irakurle.

## ai, ene!



### Txakur itxura duen poltsa merkaturatu dute

Batzuk txakurra poltsan eramaten dute; beste batzuk, berriz, txakurra poltsa bezala. Hori bai, ez du zaunkarik egiten.

www.nopuedocreer.com




MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ATE IREKIKO JARDUNALDIAK
ARRASATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2008-2009

| EGUNA | ORDUA | LEKUA | TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA |
|---|---|---|---|
| maiatzak 6 (asteartea) | 18:00 | 5001 Gela | •Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak<br>•Informatika Sistemen Administrazioa<br>•Informatika Aplikazioen Garapena |
| maiatzak 24 (larunbata) | 11:00 | 5001 Gela | •Proiektu Mekanikoen Garapena<br>•Mekanizazio Bidezko Produkzioa<br>•Industri Ekipoaren Mantenimendua |